

ESKU- ARGI

GARAPEN KOMUNITARIO
INKLUSIBORAKO TRESNA
BAT EKONOMIA SOZIAL
ETA SOLIDARIOTIK TOKIKO
ETA GLOBALEKO GIZA
GARAPENERAKO.



Reaitortza – ez merkataritzarako – partekatu baimen beraren arabera 3.0. material hau libre kopiatzeko, banatzeko eta jakinarazteko baimena ematen da, betiere haren egilea aipatzen bada eta merkataritza helburuetarako erabiltzen ez bada. dokumentuen aldaketarik egiten bada, beste era bateko dokumentuan aldaketarik egiten bada, beste era bateko dokumentua sortzeko edo horretan oinarrituta beste obra bat egiten bada, hau bezalako lizentzia eskuratuta baino ezin da banatu. lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/es/emaús>



KOORDINAZIOA: Asier Arcos

LAN TALDEA: Asier Arcos, Ane Escondrillas

EZTABAIDA-FOROaren DINAMIZAZIOA:
Delicia Aguado, Patricia Martínez eta Jone Martínez,
EHUko Parte Hartuz ikerketa-taldea.

KOLABORATZAILE: Ofelia Gaitán (Reserva Silvestre Quelántaro), Saioa Polo (Mugarik Gabe), Maira Rocha (Faces Do Brasil), Mariana Giroto (Universidad de Sao Paulo), Angeles Carrión (MESSE), María Belén González (Butroi Bizirik), Monike Gezuraga (UPV-EHU), Naiara Berasategi (UPV-EHU), Josebe Alonso (UPV-EHU), Pilar García (Emaús Gizarte Fundazioa), Ettore Papa (Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna), Gotzone Gallastegui (Emaús Gizarte Fundazioa, Maitane Muñoz (Orue Eskola).

LEGEZKO GORDAILUA: SS-367-2018

ITZULPENA: Idoia Larrañaga

DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Iban Buján

ARGITALPENA DOAN DESKARGATZEKO:
www.emaus.com/
<https://issuu.com/grupoemausfundacionsocial>

Babestuta:



1. SARRERA

Idatzi hau 2016 urtean Emaús Gizarte Fundazioak hasitako Esku-Argi prozesuaren ondorioz sortzen da.

Prozesu honek, hezkuntza eraldatzailatik, gizarte justizia erreala eta iraunkorra izateko egoera bat sortzen duten elementu horiek lantzeko beharrari erantzuten dio. Era berean, prozesuan izaera praktikoa duten tresnak garatu dira, errealitate eta prozesu konplexuak modu didaktikoan ulertzea errazten dutenak eta bizkaitar eremuan errealitateak erakusten laguntzen dutenak, gure iritziz praktika egokiak izan daitezkeen tresnak.

Prozesuaren bitartez hainbat gaien inguruan eztabaida eta hausnarketa sakontzen jarraitu nahi dugu: pobrezia, gizarte bazterketa, gizarte desberdinkeriak eta hauek sortzen dituzten egiturazko zergatiak, globalak eta bertakoak. Garrantzitsua da egiturazko zergati horiek eztabaidatzea eta barneratzea, proposamen eta estrategia berritzaileak bilatzeko helburuarekin, Tokiko Giza Garapenaren (aurrerantzean TGG) dimentsio guztiak landuz eta ikuspegi komunitarioa eta inklusibo batetik. Horrez gain, Bizkaiko eta Hegoaldeko lankidetzako eragileek TGG gaian duten eskarmentuan eta ezagutza akumulatuan euskarrituz.


Hain zuzen ere, prozesu honen azken helburua, Bizkaiko (tradizionalak eta ez tradizionalak) eta Hegoaldeko lankidetzako eragileen tokiko gaitasunak, gaitasun indibidualak eta kolektiboak sortzeko prozesuak sendotzea da. Hau guztia, Giza Garapen Jasangarri bat bere hiru dimentsioetan (soziala, ekonomikoa eta ingurumen dimentsioa) modu progresibo batean sustatzeko partaidetza kolektibotik, genero ikuspegitik eta ESSren esparruan.

Horretarako, hasiera batean, Ipar/Hego sektore-anitzeko eztabaida bat sortu da sarean, bazterketa/inklusioaren erronken inguruan, tokiko eta global mailan egiturazko pobrezia elementu sortzailea bezala. Helburua, Tokiko Garapen Ekonomikoaren inguruan eskuratutako ezagutza balioztatzea eta era berean errotik baztertzea, iparrear eta hegoan gaitasun kolektiboen eta indibidualen sorrera prozesuak hobetzeko eta GGJ lantzeko genero ikuspegitik. Eztabaida honen ondorioz, Tokiko Garapen Ekonomiko Komunitarioko eta generoko Ipar/Hego esperientzia berritzaileen mapaketan oinarritutako gomendio txosten bat burutu da, esperimentazio arduratsutik arrakasta gakoan eskaintzen dizkiguten, inklusiorako gaitasunen hobekuntzara bideratua.

Beraz, dokumentu honek, lehenik eta behin, teoria eta kontzeptuak argitzeko material bezala balio izatea nahi du, lehen zati guztian hainbat kontzeptu zer diren, nola sortzen eta lantzen diren definitzen saiatzen da: inklusio/ bazterketa mota ezberdinak, bazterketaren dimentsio-anitzeko eta interseksionalitate izaera, baita Ekonomia Solidarioaren ahalmena gaitasunen sortzailea bezala, indibidual eta kolektibo mailan.

Bigarren atalean praktika egoki desberdinak aurkezten dira. Gure iritziz, praktika hauek inklusioa egiteko eta lantzeko modu egokien adibide dira partaidetzatik, hezkuntzatik eta ekonomia sozial eta solidarioratik. Praktika hauen helburua, bertan islatzen diren hainbat arrakasta gako aurkeztea da.

Azkenik, prozesuaren eta ikerketaren konklusioentzat espazio bat dago, ezagutzaren eraikuntza kolektiboko prozesu honetatik eratortzen diren ikaskuntzak eta arrakasta gakoak sistematizatzen diren espazio bat.



AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. METODOLOGIA	8
3. GIZARTERATZE/ BAZTERTZE PROZESUAK ETA TOKIKO GIZA GARAPENA	13
4. PRAKTIKA EGOKIAK	18
4.1. ikaskun-tza Komunitateak. Lekeitio Eskola	
4.2. Hasiera Proiektua	
4.3. Silvestre Quelantaro Erreserba Nikaragua	
4.4. Bizkaigane	
4.5. Gizarte-ratzeko Bitartean Programa	
4.6. Maki Fair Trade Red Pakariñan Ecuador	
4.7. MICC Asociación de Integracion Campo-Ciudad	
5. KONKLUSIOAK	34
6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	37

2. METODOLOGIA

Emaúsen ikerketa, ezagutza sistematizatzea eta sortzea, posible egiten duen partaidetzako espazio bat bezala ulertzen dugu, eta ekintzara bideratzea. Hori horrela izanik, eraikuntza eta ikerketa kolektiboko prozesuan premisa ezberdinak kontuan hartu dira:

Ikerketek izaera praktikoa izango dute nagusiki, erabiltzeko materialak, tresnak eta metodologiak eskainiko dituzte, era berean, gure estrategiak elikatuko dituzte.

- Gauzatutako ikerketa guztietan tokikoa-globala ikuspegia jasoko dugu, eta horietan hegoaldeko eragileek parte hartuko dute. Horretarako, bibliografia iturriak parekideak izan daitezten eta anglosaxoi munduan ez oinarritzea bilatuko dugu.
- Ikerketek izaera berritzailea izango dute eta sektore bakoitzean erreferente diren eragileek parte hartuko dute, lan egiten dugun sareekin eta aliantzekin aurretik hitzartu eta adostu ondoren.
- Ikerketa guztiek genero ikuspegia kontuan hartuko dute.
- Ikerketa behin gauzatu denean, bere sozializazioa eta ikustera ematea beharrezkoak izango dira.

Jarraitu den prozesua ondorengoa izan da:

- Lan egin den gai-lerro bakoitzean joeren identifikazioa. Zehazki, Ekonomia Sozial eta Solidarioa, Gizarteratzeko eta inklusio/bazterketa prozesuak landu dira.
- Informazio/ezagutza beharren identifikazioa, gai-lerro bakoitzean gure lana modurik eraginkorrenean finkatzeko.
- Iparreko eta Hegoko gure aliatuekin koordinazioa, ikerketaren eta ezagutzaren beharren inguruko beren ikuspegia jasotzeko. Erabilitako bidea online bidezko eztabaida foro bat izan zen.
- Iparreko eta Hegoko adituekin kontsulta, ikerketa proposamenak leuntzeko eta ikerketa metodologiak definitzeko.

Erabilitako metodologia foro birtualak gauzatzea eta eztabaida talde bat izan da. Esperientzien sistematizazio metodoaren orientabideak jarraituz (Jara, 2012), foroetan parte hartu dutenen esperientzia ezberdinekin lan egin da. Herri hezkuntzan, gaien ikerketan eta ikerketa-ekintza parte hartzailean bere sustraiak errotzen dituen metodologia hau, gizarte munduan ezagutza baliotsu bat existitzen denaren ideian oinarritzen da, prozesu sistematiko baten bitartez argitu eta eraiki daitekeelarik. Era berean, prozesu hau lankidetzaren eta kooperazio moduan burutzen da, ezagutzaren eraikuntza elkarrizketa eta eraikuntza bateratu edo kolektiboaren bidez gauzatzen delako.

Eztabaida foroaren dinamizazioa, garapen komunitarioan, generoan eta partaidetza adituen ardura izan zen, Euskal Herriko Unibertsitatearen Parte Hartuz ikerketa taldeko kideen ardura.

Horrela, foroa lau une garrantzitsuren inguruan antolatuta zen, 2017 urteko hasieran 7 astetan zehar garatzeko. Horretarako, testu laburren erabilera, bideoak eta beste zenbait ikus-entzunezko baliabide erabiltzetik abiatu zen metodologia bat jarraitu zen. Guztiaren helburua, eztabaida bideratzea eta eragile parte hartzaileen ikaskuntzak, esperientziak eta ikuspegiak sortzea zen.

- 1. Unea: Zer ulertzen da bazterketa/inklusioaz?
- 2. Unea: Desberdinkerien gurutzaketetan sortzen diren botere erlazioak
- 3. Unea: Bizitzaren jasagarritasunaren paradigmaren sakondu, ikuspegi inklusibo batetik
- 4. Unea: Ikaskuntza kolektiboak

Foroan guztira, eremu ezberdinetatik eratorritako 24 eragilek parte hartu zuten: akademia mundua, oinarritzko gizarte mugimenduak, garapenaren lankidetzako irabazi asmorik gabeko erakundeak, erakunde feministak, etorkinen erakundeak, Ekonomia Sozial eta Solidarioako erakundeak, ingurumenaren aldeko erakundeak, gizarteratzeko erakundeak eta entitate publikoak. Eragileen jatorria Bizkaia, Ekuador, Brasil eta Nikaragua zen.

Garrantzitsua da eraikuntza kolektiboaren balioaren ideia nabarmentzea, lan eta posizionamendu eremu desberdin, ahots eta gaitasun ezberdinetatik. Horrela, eztabaidara ekarpenak egin zitzaizketen pertsonak gonbidatu ziren ondorengo gai hauetatik: Generoa, Gizarteratzea, Kogarapena, Ekonomia Sozial eta Solidarioa, Ingurumena, Tokiko Garapena, Partaidetza eta Hegoaldeko ikuspegia.

Eztabaidaren ondorioz, hainbat ikaskuntza definitu ziren jasagarritasunaren ildotik. Praktika egokien gidoi bat burutu zen, betetzeko fitxa batean bihurtuz. Horrela, iparreko eta hegoko 14 ekimen identifikatu ziren guztira, neurri batean zein bestean, eztabaidan gako bihurtu ziren alderdi horien adibide izanik. Informazio bilketa hainbat kasutan elkarrizketa pertsonalen bitartez gauzatu zen eta beste zenbait kasutan, ekimenetako ordezkariak beraiek bete zituzten fitxak.

Azkenik, Emaús Gizarte Fundazioko langileek eskuratutako material guztia berrikusi eta sistematizatu zuten, eta amaitzeko txosten hau idatzi zuten.

3. INKLUSIO/ BAZTERKETA PROZESUAK ETA TOKIKO GIZA GARA- PENA

Inklusioko gaitasunak «kale» egiten duenean, ereduak berak egiten du kale. Horrela, egungo egoeran beharrezkoa da berriz pentsatzea zer da barneratu edo baztertu behar den hori. Inklusioko helburuak zeintzuk izan behar duten eskakizuna eredu sozioekonomikoaren ardatza edo erdigunea da eta justiziaren bere ikuspegiaren isla hobereana da. Dubois, A. (2013)

Bazterketa eta inklusio prozesuen inguruan hausnartzeak, lehenik eta behin, existitzen diren testuinguruen inguruan galdetzeraz eramateko gaitu. Tradizional mailan, inklusioak barruan egotearekin zerikusia du eta bazterketa aldiz, kanpoan egotearekin. Hortaz, gizarte abizena jartzen badiogu, gizarte barruan gaudenean barneratuak gaudela ulertuko da eta kanporatuak, gizartearen mugan edo kanpoan gaudenean. Baina, hau hain erraza al da? Zein inplikazio ditu pertsonentzat eta kolektibo ezberdinentzat? Zerbaiten barruan eta kanpoan egon al gaitetzke? Planteatzen den galdera ez da erraza, gaiaren inguruan literatura zientifikoak erakusten duen bezala, lehenengo tokian, konplexutasun handiko gizarte testuinguru batean kokatzen ditu inklusio-bazterketa prozesu hauek.

Aldaketak oso azkar ematen diren gizarte batean bizi garen baieztapenarekin ez dago eztabaida handirik, gaur bertan gerta daitekeen horren inguruko kezka etengabe batekin; teknologia pertsonen, kolektiboen, erakundeen, estatuen... erlazioak aldatzen ari da. Modu askotan deitzen den gizarte bat, ezagutzaren gizarte, ikaskuntzaren gizarte, informazioaren gizarte (Castells, 2000), arriskuaren gizarte (Beck, 1986), konplexutasunaren gizarte (Morin, 2004). Neurri batean aurrera doan gizarte bat, baina gizarte desberdinkerietan sakontzen duena, industria gizarte eta kapitalismoa ezaugarritzen zuen gizarte. Azken urteetan krisiaz hitz egiten den arren, finantza eztearen aurretik dagoeneko krisian zegoen gizarte bat, dimentsio anitzeko izaerako krisi bat, Pérez Orozco ekonomista feministak (2012) adierazten duen bezala.

Krisi ekologikoak elkarren artean konektatuak dauden dimentsio ezberdinak biltzen ditu: klima aldaketa, baliabide naturalen agortzea eta bioaniztasunaren kolapsoa. Gizarte erreproduktzioaren krisiaz ari garenean, pertsonen erreproduktzio material eta emozionalen espektatiben multzoa eskurazina dela adierazten dugu, askotan, heriotzan ondorioztatu daitekeelarik, elikadura krisiarekin gertatzen den bezala. Zaintzen krisiaren nozioak, aipatutako erreproduktzio espektatiben dimentsio zehatz bati eragiten dio: zaintzak, zaintzen konponketak asegabeak, nahikoa ez, prekarioak eta modu ez askean hautatuak direla adieraziz. (32. or.)

Elkarren artean erlazionatuta dauden dimentsioak eta krisi ekonomiko globalak eztanda egiten duenean agertzen dira, gizarte desberdinkerien handitze bat sortuz. Krisiaren eragina kolektiboetan eta pertsonetan desberdina da faktore ezberdinen arabera, ondorioz, bazterketa eta inklusio prozesuak oso konplexuak dira.

“Gizarte bazterketa” terminoaren erabilerak, beraz, arriskuak ditu: agindu baztertzailaren onarpena, agindu hori aldatzeko aktoreen protagonismoa ez ezagutzea, bazterketaren definizio bat onartzea egoera bat bezala eta ez prozesu bat bezala, “baztertuak” “marginalekin” edota “arriskutsuekin” identifikatzea. (Mancebo eta Goyeche, 2010, 7. or.)

Hortaz, ezin dugu hitz egin gizarte inklusioaz (gizarteratze) edo gizarte bazterketaz soilik, edo pertsona baztertuez edo barneratuez, norbanakoaren aukera edo norberak aukeratutako egoera bat balitz bezala. Egungo gizarte bazterketa/inklusio prozesuak ematen direla ulertu behar dugu, interakzioan dauden prozesuak. Era berean, ezin dezakegu hitz egin pobrezia edo marjinazioari lotutako bazterketaz, eta inklusioaz, zerbaiten parte izatearekin, gizarte kohesio gunean egotearekin... erlazionatua. Egungo egoerak gaia askoz konplexuagoa dela ikusarazten digu, gaurko barneratuak bihar baztertuak izan daitezke... Castel-ek (2004) baieztatzen duen bezala “gizarte gai” bat da.

Castel-ek (2004) gizarte eredu aldatu dela ulertzen du, eta gizarte gaia, gizarteak berak kohesioa (gizarte kohesioa) mantentzeko duen gaitasunagatik duen kezka bezala ezaugarritzen du. Egile honentzat, pertsona batek duen posizioaren eta lanaren eta sare sozialetan eta babes sistemetan duen partaidetzaren artean, elkarren arteko erlazio bat existitzen da. Horrela, “gizarte kohesioko” hiru gune identifikatzen ditu. Lehenengoa, integrazioa, bizitza duin bat izateko lana eta sare sozial egokiak izatea delarik; bigarrena, desafilazioa, sare sozialak eta lana ez direla mantentzen suposatzen duena; eta azkena, gizarte ahulezia, “lanaren prekarietatea eta gertuko euskarrien hauskortasuna konjugatzen dituena” (13. or.). Horrela, bazterketak pertsonaren egoera zehatzarekin zerikusirik ez duela uler dezakegu, bere egoerarekin baizik, aldagai ezberdinei dagokionez. Modu horretan, bazterketa ezin

daiteke ulertu inklusioarekin interakzioan egon gabe eta edozein kasutan, inklusioa ezinbesteko elementua da gizarte kohesiorako.

Zentzu honetan, Mascareño eta Carvajal-ek (2015) elkarren artean erlazionatuta dauden inklusio-bazterketako 5 egoera identifikatzen dituzte¹.

AUTOINKLUSIOA/AUTO-BAZTERKETA: Pertsonak beren kabuz aukeratzen dute parte hartu ala ez. Hau posible egiteko, pertsonak beharrezkoak diren gaitasun indibidualak (adibidez, heziketa eta diru-sarrera ertainak) eta gizarte testuinguru egoki bat izan behar dituzte.

Adibidez, Idoia kongregazio erlijioso bateko kide ez izatea modu askean aukeratzen duen atea da. Hala ere, boluntario izate horrek ez dio inklusio/bazterketa continuum horri konplexutasuna murrizten. Horrela, fededun batek Idoia barneratu dezake modu unilateralean eta positiboan (Jainkoaren ahizpa, alaba) edo negatiboan (fedegabea). Era berean, barneratzeko konbentzitzen saia daiteke metodo batzuk edo besteak erabiliz (bai ebanjelizatuz, bai erail muturreko kasutan). Modu horretan, Idoiak atea zabalik du (berriz) barneratzeko egoki iruditzen bazaio.lo considera oportuno.

INKLUSIOA / BAZTERKETA ARRISKUAGATIK: Kasu honetan, zama ez du norbanakoak eramaten erakundeak baizik. Bereak barneratzen eta era berean, baztertzen dituen kontingente sozial bat, geroz eta maizago gertatzen delarik testuinguru global eta oso konplexu batean.

Adibidez, Samuelek sare sozialetan nabigatzen du. Egiten duenean, bere datuak salduak izaten dira helburu ekonomikoekin eta bere pribatutasunaren inbasio bat da. Baina Samuelek ez du erabakitze gaitasunik, ez du ahotsik sare sozialaren aurrean. Sare barruan dago eta horrekin batera, erabaki hartzetik kanpo. Era berean, Iria galiziar kostan lan egiten duen saregile bat da, petrolio-ontzi bat ondortzearen ondorioz hondamendi ekologiko bat gertatu zen kostan. Iria merkatu ekonomikoaren erabakietatik eta bertako onuretatik baztertua da, baina gertatutako ondorioetan barneratua. Geroz eta maizago ematen den zerbait gizarte globaletan (krisia sortzen duten subprime hipotekak, migrazioak behartzen dituzten finantza-politikak...).

KONPENTSAZIOZKO INKLUSIOA / BAZTERKETA BARNERATZAILEA: Inklusioaren ohiko modua da. Erakunde batek -normalean publikoa- hainbat bizitza baldintza (ber)ezartzen ditu, itxura batez iragankorra den desberdinkeria egoera bat gaintzeko. Era berean, eskusio barneratzailea dela nabarmendu behar da, esku-hartuko den desabantailan dagoen taldea identifikatzen delako, ondorioz desberdinkeria nolabait legezatu eta instituzionalizatu egiten da.

Adibidez, Aitorrek Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen du iraupen luzeko langabezian dagoelako. Modu honetan, gutxiengo zerbitzu batzuetara -janaria, etxebizitza- barneratzeko eta hauek eskuratzea bermatzeko modu bat da, baina baita baztertzeko modu bat ere. Aitorrek dio talde ezberdin batekoa dela, askotan, diskriminazioaren estereotipoan erortzen dela.

INKLUSIOA BAZTERKETAN: Kolonia-ondoreneko teoretatik menpekoak deiturikoak. Barneratuak dauden pertsonak dira baina era berean, taldeen arteko asimetriaren ondorioz subordinatuak daude, ohiko moduan justifikatua, nagusi den ideologiak euskarritutako argudio komunitario edo tradizioaletan oinarrituz. Hau da, kategoria sozialak ezartzen dira, askotan nagusi diren taldeek ezarritako eta errepikatutako estereotipoetan oinarrituak.

Adibidez, Esmeralda gizartean barneratua dago -lan egiten du, bozkatu...- baina emakume bezala desberdinkeria egoeren aurrean dago etengabe, bai indarkeria fisikoak -agresio matxistak- bai sinbolikoak -gauzatze mediatikoa, laudorioak, ikusezintasun urbanistikoa edo linguistikoa... Hau estrapola daiteke kasta, klase, aniztasun funtzional, genero, identitate, sexu orientazio, jatorri etniko, hizkuntza, erlijio... arrazoiaren ondorioz.

AZPI-INKLUSIOA: Oinarritzko eskubideak balioztatzeko instituzio-baldintzen gabezia, baina indar fisikoaren erabilerarekin mehatxatzen den ordena sozial baten aurrean erantzutera behartzen da.

Adibidez, Iker eta Juan bikote dira homosexualitatea debekatua dagoen herrialde batean. Hiritarrak dira baina ezin dute beraien egoera modu publikoan adierazi gerta daitezkeen errepresioengatik.

Azken batean, inklusioaren eta bazterketaren arteko erlazioek, norbanakoaren espektatibak, hautakortasuneko tarte handiak -norbanakoaren erabakia-, ertainak eta baxuak -gizarte hertsadura handia- zehazten dituzten, erakunde edo instituzio errendimenduekin lotzen dituzte. Horrez gain, ez dugu ahaztu behar inklusio eta bazterketa modu ezberdinen artean mugikortasun etengabe bat dagoela. Hori horrela izanik, politika publikoen diseinutik ezin daiteke hitz egiten jarraitu inklusioaz eta bazterketaz aparteko munduak balira bezala, ezta muturreko egoerak -muturreko pobrezia- bezala ere. Eta azkenik, ezin daiteke ahaztu, edozein esku-hartzek -publikoa edo pribatua- eragin baztertzaila potentzialak ezin dituela ahaztu, ondorioz gabe erabakirik ez dagoelako. Inklusio-bazterketako modu ezberdin hauen garapenak gizarte konplexutasun handiaren inguruan hitz egiten digute, baita parametro hauetatik aztertu behar diren inguruan ere. Interseksionalitatea gizarte errealitatea ulertzen lagundu gaitzaken kontzeptua da, konplexua,

¹ Delicia Aguado, Patricia Martínez eta Jone Martínez ikertzaileek burututako laburpena, Euskal Herriko Unibertsitateko Parte Hartuz Ikertza Taldeko ikertzaileak.

interakzio eta fenomeno konplexuz beteriko gizartea. Hasiera batean, kontzeptu hau feminismo beltzetik garatu da, askotan pertsonak emakume bezala ezaugarritzea nahikoa ez delako. Emakumeak gara, baina gainera txuriak, beltzak, mestizoak, ijitoak, magrebtarrak... gazteak, haurrak, adinduak... izan gaitetze eta Collins eta Sirma Bilge-k (2016) dioten bezala:

Interseksionalitatea konplexutasuna ulertzeko eta aztertzekeo modu bat da munduan, pertsonetan eta giza esperientzietan. Bizitza sozial eta politikoaren ekintzak eta baldintzak eta subjektibotasun berak ere nekez izan daitezke ulertuak faktore bakar baten bitartez. Faktore ezberdinez osatuta daude modu desberdin batean eta elkarrekiko eraginkorrak dira. Gizarte desberdinkerari dagokionez, pertsonen bizitzak eta boterearen antolakuntza gizarte zehatz batean hobeto osatzen dira, elkarren artean lan egiten eta batzuk besteen eragina duten hainbat ardatzen bitartez egindako eraikuntzak bezala ulertzen badira; ez ordea, gizarte banaketako (arrazo, generoa edo klasea) ardatz bakar baten bitartez eginko eraikuntzak bezala ulertzen badira. Interseksionalitatea, tresna analitiko bezala, munduaren eta norberaren konplexutasunera sarrera hobeto bat posible egiten die pertsonen. Pertsonen interseksionalitatea erabiltzen dute beren edo bere inguruko arazoak konpontzeko tresna analitiko bat bezala.

Horrela, interseksionalitateak gizartea biltzen duen konplexutasuna ulertzen laguntzen digu, baina ulertzea ez da nahikoa, gizarte justuagoen eta ekitatiboagoen garapenaren bidean aurrera egiteko zer egin daitekeen jakitea beharrezkoa da. Espainiar estatuko azken 40 urteetako garapenaren inguruan pentsatzen badugu, adibidez, hezkuntzan, gizarte zerbitzuetan, osasunean... aurrerapen garrantzitsuak ikus daitezke, bizi garen estatu neoliberalen bizi arren. Nazioarteko erakundeek inklusio unibertsal, hezkuntza-inklusio eta gizarte-inklusio (gizarteratzea) bat lortzea espero dute (Casanova, 2011), hori lortzeko gizarte eta hezkuntza prozesu inklusiboak garatzea posible eginez, gizarteratzeke hezkuntza oinarritzko elementu bat baita.

..., nazioarteko izaerako hainbat arau zerrendatuko ditut,... hezkuntza inklusiboa beharrezkoa bezala gomendatzen dutenak justizia sozial eta demokratikorako, eta garrantzitsua eredu hau hezkuntzako profesionalen sektore baten kapritxo bat ez dela onartzeko, nazioarteko erakundeek modu globalean onartutako eta hartutako eredu bat dela onartzeko baizik. Adibide bezala: Haurraren eskubideen adierazpena (1959); arraza diskriminazio modu guztiak ezabatzearen gaineko Nazio Batuen Adierazpena (1963); Eskubide ekonomiko, sozial, kulturalen Nazioarteko Ituna (1976); Haurraren Eskubideen gaineko Nazio Batuen Konbentzioa (1990); Guztiontzako hezkuntzaren gaineko munduko Adierazpena (1990); Salamancako Adierazpena (1994); Emakumearen gaineko Munduko Hitzaldia (1995); Delors Txostena (1996); Dakarreko Ekintza Markoa (2000); Ezgaitasunak dituzten pertsonen eskubideen gaineko NBEren Nazioarteko Konbentzioa (2006); Nazioarteko Hitzaldia “Hezkuntza inklusiboa: gizarte kohesioaren alde egiteko bidea” (Madril, 2010) edo XX Iberoamerikar Gailurraren Adierazpena “Mar de Plata” (2010). Europar Batasunean oinarrituz, nabarmendu zuen: Europar gizarte Eskutitza (1996); Luxemburgoko Eskutitza (1996); Europar Batasuneko oinarritzko eskubideen Eskutitza (2000); Ezgaitasunak dituzten pertsonentzat oztoporik gabeko Europa baten bidean Ebazpena (2001); Madrillgo Adierazpena (2002) edo Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen Irizpena (EEGL): “Inklusiorako hezkuntza: pobrezia eta gizarte bazterketaren aurkako borroka tresna bat” (2010). (23. Or.)

Kointzidentzia bat existitzen da, bai nazioarteko erakundeen artean bai literatura zientifikoaren artean, guztientzako Hezkuntza -eta eraldaketarako hezkuntza, bere ekintzako testuinguruan-, eskuragarria eta kalitatezko hezkuntza, onartuak diren printzipioak dira hezkuntza sistema guztientzat. Horrez gain, gizartearen garapenerako elementu garrantzitsu bat da, formazioaren bidez giza kapitala handitzeari laguntzen dion neurrian, hori dela eta gizarte ongizatearen alde egiten du, kostu sozial eta ekonomiko garrantzitsuak sortzen duten bazterketa gainditzen laguntzen du. Hala ere, hau ez da posible izango pertsona guztiengana iristen ez bada, beren egoera soziala, pertsonala, kulturala edozein dela ere,... (Soriano Gracia, 2011)

...zentzuzkoa dirudi, pertsona ezberdinek aniztasunean elkar-bizi beharko dutela modu positiboan; eta egoera hau eman dadin, egokia da ere pertsona guztiak ezagutzea, errespetatzea, baloratzea... Hezkuntza prozesua, elkarrekin eta aukera berdintasunarekin hezitzen diren zentroetan ematen bada, ondorioz, biztanleria ez da desberdindua ezta marjinatua izango sexu, gaitasun edo talentu, etnia, erlijio... arrazoiengatik; edo norbanakoa bereizten eta demokrazian goza daitekeen aberastasun handia osatzen duten beste egoera batzuen arrazoiengatik. (Casanova, 2011, p 22)

Hezkuntza-inklusioak hezkuntza ekitateari esan nahi berri bat ematen dio, pertsona guztientzat aukera berdintasunaren kontzeptura eramaten du, gizartearen parte aktibo eta erantzunkide izateko, bizitza duin bat bizitzeko, eskubideen eta betebeharren hiritar bat izateko eskubidea dutenak. Escudero eta Martinezek dioten bezala (2011):

Inklusioa ez da despotismo ilustratuko edozein itxuraren azpian dagoen opari bat, eraginkorra egiteko sare sozialak, laguntza sareak eta eragile askoren sinergiak eskatzen dituen proiektu eta prozesu bat baizik, hain zuzen ere, eragiten dien subjektuen balore demokratikoen eta partaidetza eta inplikazio aktiboko printzipioen ondorioz. Gizarte zibilaren protagonismoari zuzendutako apelazioak botere publikoen omisioetarako aitzakia bezala balio izatea saihestuz, zeharkatzea beharrezkoa den bide bat da, bere oztopoak eta zailtasunak edozein direla ere. (24. Or.)

Horrek guztiak aldaketa bat eskatzen du hezkuntza erakundeetan, bereziki ikastetxeetan -baina ez bakarrik horietan-, gizarte honek aurkezten dituen erronkei erantzuna emanez. Soriano Gracia (2011), arrakastako hezkuntza esperientzietatik eta praktika egoki barneratzaileetatik abiatuz, eskola inklusibo baterako funtsezkoak diren hainbat elementu identifikatzen du, kalitatezko eskola bat guztientzat. Ondorengoak dira:

- “Elkarrekin ikasi” printzipioa praktikan jartzea, ezberdintasunak kontuan hartuz eta errespetatuz.
- Hezkuntza sistema malgu bat abian jartzea, hezkuntza beharrei erantzuteko gai izatea bere konplexutasunean eta aldaeran, inplikaturak dauden aktore guztien partaidetza aktiboarekin.
- Administrazioa, irakasleria eta gurasoen arteko lankidetzak eta partaidetza erreal baten existentzia, baita guztien artean partekatutako egoitzako proiektu baten existentzia ere.
- Ikasleen gaitasunetan eta indar-guneetan oinarritutako hezkuntza ikuspegi global bat, beren muga posibletan oinarritu ordez.
- Ikasle guztiei kalitatezko hezkuntza bat ziurtatu, hezkuntza programa indibidualizatu bat eskainiz (PEI); beharrezkoak diren eskola berrantolatetarako aurreikusitako, baita ikaskuntza erritmo ezberdinak ere; baliabideen (laguntza eta formazio baliabideak) erabilera ezin hobea. (Soriano de Gracia, 2011, 39-40 or.)

Baiezta dezakegu, bai hezkuntza inklusioak bai gizarteratzeak bere oinarrian giza eskubideak eta demokraziaren printzipioak dituztela, bai pertsonetikiko eta beren artean dauden ezberdintasunekiko errespetua, baita ezberdina izatea aberastasun bezala balioztatzea ere. Freirek (1997) adierazten zuen bezala, berdintasunaren printzipioa desberdintasunean mantentzea inplikatzeko du, hiritarren eskubidea erabaki politikoetan, sozialetan, etab. parte hartzea, ahots guztiak jasotzea posible egiten duten prozeduren bitartez, beren kultura kapitalarekin egin ditzaketen ekarpen guztiak baliotsuak eta beharrezkoak direla gizarte aurrerapenerako, eskubide eta aukera berdintasuna praktikatzeko eskatzen dituelarik. Casanovak (2011) baieztatzen du, horrek “guztion partaidetza eskatzen duen gizarte bat eraikitzea denez, bizitzako eremu guztietan beren eskubideak betetzeko formatu behar dituela, eta norbanakoaren baloreak emanez, hobekuntza sozial etengabeko bidean aurrera egitea posible izatea” (22).

Hau kontuan izanik, partaidetza soziala hiritartasunaren eta gizartearen garapenerako beharrezko elementu bezala hartzea eramatzen gaitu, bizitza duin eta jasangarri baten garapenarekin erlazioa duten esfera horietan guztietan. Gizarte inklusibo baten horizontea, erabaki hartzeko alderdi garrantzitsu guztietan ahots guztiak barneratzen dituzten prozesu parte hartzaileak eraikitzeak pasatzen da, mundu politikoa, ekonomikoa eta soziala erabakigarriak dira eta hezkuntza funtsezko elementuan bihurtzen da partaidetzaren kultura bat garatzeko.

Alde horretatik, garrantzitsua da eskubideen beharrezko ikuspegia kontuan hartzea bazterketa/inklusio prozesuak lantzeko garaian. Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia, marjinazio, bazterketa eta diskriminazio handiagoa jasaten duten biztanleriako taldeetan oinarritzen da. Ikuspegi honetan askotan genero arauen analisi bat eskatzen du, diskriminazio modu ezberdinen eta boterearen desoreken analisi bat, esku hartzeak biztanleriaren segmentu marjinatueta iristeko helburuarekin. (UNPFA 2003)

Era berean, eskubideetan oinarritutako ikuspegiaren aplikazioak, emaitzez gain, emaitza hauek lortuko diren moduarekin zerikusia duela kontuan hartu behar da. Pertsonak beren garapen propioan esku-hartzen duten eragileak bezala onartzen ditu, zerbitzuen hartzaile pasibo hutsak bezala izan ordez. Eragile hauek informatzea, heztea eta ahalduzkoa ezinbestekoa da. Beste alde batetik, beren partaidetza funtsezkoa da, bai gaitasunen sorrera prozesuetan beren titulartasuna bermatzeko, bai aurrerapena mantentzeko ere. (UNPFA 2003)

Gaitasun kolektiboaren eta indibidualen garapenari dagokionez, Tokiko Giza Garapenaren, Ongi Bizitzearen eta Ekonomia Solidarioaren ikuspegiak, partaidetzaren ideia komun bat dute, balio bezala eta praktika bezala: partaidetza ekimen ekonomiko kolektiboan, ingurunearekin konpromisoa, partaidetza eta apropiazioa maila guztietako garapen prozesuetan eta erabaki hartzetan. Era berean, demokratizazio ekonomikoaren ideia behin eta berriz nabarmendu dezakegu, ideia honen arabera: aktoreen, lurraldeen, prozesuen eta erlazio ekonomikoaren balioa handitzea eta onarpena; balibideak eskuratzea eta hauen kontrola baldintza ekitatiboetan; eta partaidetza zuzena erabaki hartze prozesuetan.

Dubois, A. (2011) ekonomialariaren hitzetan tokiko giza garapenaren nukleo osagarria, gizarte bakoitzak bere etorkizuna definitzeko eta aurrera eramateko gaitasuna izatea da, funtzionamenduko prozesu kolektibo bat osatzen duen erabaki eta honek giza garapenaren beraren helburu komunei erantzunez.

Hain zuzen ere, inklusioa/bazterketa prozesuen dimentsio kolektiboak abordaje anitz bat eskatzen du, globala, integrala-zeharkakoa, progresiboa eta iraunkorra-jasangarria; beste alde batetik, tokiko garapenak pertsonen, familiei, taldeei, kolektiboek eta lurraldeei erantzutea eskatzen du, integratzearekin batera, beren gaitasunak, aukerak hobetzen eta bizitza kalitateko testuinguru bat sustatzen duen proiektu batean (Pastor 2012).


Ezinbestekoa da garapen endogeno bat -behetik hasita- eta proiektu integralen kudeaketa parte hartzailea sustatzea, tokiko lankidetzako formula berritzaile eta sortzaileen bitartez, garapen jasangarriaren gaitasunak eta baloreak birsortzeko gai direnak konpetentziako testuinguru globalizatu batean, ekonomikoa den hori balio bakar bat bezala transzenditu dadin, eta gure bizitzako eremu guztietan iragaz dadin (egiturak, erlazioak, irudizko pertsonal kolektiboak). Ikuspegi honek posible egiten du analisi eta esku-hartze komunitarioko prozesu berrietan sartzea, gizarte aktore ezberdinen rolen berrikuspen sortzaile eta berritzaile batetik (Pastor 2012).

Zentzu honetan, ekonomia sozial eta solidarioak, ekonomia giza beharretara dagoen bitarteko bat bezala onartzen du (ez helburu bezala) eta zabalagoa den erreferentzia marko batean barneratzen da. Tokiko Giza Garapen Jasangarriko ikuspegiak eta Ongi Bizitzearen proposamenak erreferentzia markoak eskaintzen dituzte, hainbat kasutan alderdi komunekin eta beste batzuetan alderdi osagarriekin. Marko hauetan "ekonomia solidarioa burutu daiteke eta tokiko garapen berri baten eragilea da". (Dubois, A. 2010)

Beraz, Ekonomia Sozial eta Solidarioa, Tokiko Giza Garapenaren dimentsio ekonomikoa den bezala, Giza gaitasunen sortzailea dela baieztatu dezakegu eta ondorioz, Gizarteratze prozesuen sortzailea da. Horrela, ekonomia sozial eta solidarioa euskarritzen eta sustatzen duten printzipioek eta baloreek gaitasun zentralak indartzen laguntzen dute, lana jarduera ekonomikoaren

eta giza jardueraren erdigunean kokatzen dutelako, kapitala bere menpeko eginez. Kontuan hartzen ditu bere giza, sozial eta politiko dimentsioak eta lankidetzak sustatzen du lehiakortasunaren aurrean, tokiko garapen armonikoan, merkataritza erlazio justuetan, berdintasunean, konfiantzan, erantzukidetasunean eta gardentasunean oinarritutako gizarte eredu bat modu kolektiboan eraikitzeko. Guridi, L., Pérez de Mendiguren, JC. (2014)

Razeto-ren (2006) hitzetan, gizarteratzeak eta hezkuntza inklusioa, latinoamerikar eta europar gizarteek aurre egin behar dioten arazo garrantzitsuena, larriena eta zailena da. Gizarte bazterketa jasaten duten pertsonen eta gizarte taldeen proportzioa izugarria da, hain zuzen ere, gehiengo eta bazterketa, murriztu ordez, areagotzen ari da. Aldakorra den kontzeptu honek nolabaiteko diagnostiko bat eskatzen du, gizarte bazterketari, sortzen duten prozesuei eta arrazoi erabakigarriei dagokionez. Oinarri horiekin soilik asmatuko dugu, gizarte bazterketaren arazoiari modu eraginkor batean laguntzeko politikak eta programak formulatzen, baita inklusiorako dinamika eraginkorrak sortzen ere.



4. PRAKTIKA EGOKIAK

Ondorengo praktika egokiak, alde batetik, 2017 urte erdialdera gizarteratze/baztertearen inguruko eztabaida foroan parte hartu zuten pertsonen proposamenetatik eratorritako hautaketa batetik datoz.

Beste praktika egoki batzuk, Emaús Gizarte Fundazioaren bazkide eta aliatuak diren entitateek proposatu dituzte eta ikerketa-ekintza beste prozesuetatik eratorzen dira. Emaús Gizarte Fundazioak lan egiten duen gai eta praktika arloen artean dauden sinergia nabarien ondorioz, iturri ezberdinetatik eratorritako praktika egokiak barneratzea kontuan hartu da.

Hain zuzen ere, parte hartzen dugun **esperientzien sistematizazioa**, ezagutzaren sorrera prozesu eta praktikatik kontzeptualizazio bezala ulertzen du Emaúsek. Sistematizazioak, ezagutzaren ekoizle kontziente bezala, izaera kolektiboko ezagutza sortzea posible egiten du, gure praktiken konplexutasuna onartuz eta praktika horiek berriz eraikitzea eta esperientzien logikaren interpretazio kritiko bat lortzea bilatzen du.

Dokumentuak duen hedapen mugatuaren ondorioz, guztira 7 praktika egoki erantsi dira dokumentuan. Jatorri ezberdineko praktikak dira, Ekuador, Nikaragua, Brasil eta Euskal Herria (Bizkaia) eta sektore oso desberdinei erantzuten diete: hezkuntza, pertsona helduen gizarteratzea, artisautzen banaketa kooperatiboa, salmenta, banaketa eta agroekologian edo ingurumenaren babesean lan egiten duten eragileak eta gobernagarritasun demokratikoaren fauna eta sustapena.

Horrez gain, bidezkoa da ere beste esperientzia batzuk izendatzea, dokumentu honetan ez badaude ere, aberastasuna emango liokete dokumentu honi. Hauek izan ziren foroan zehar parte hartzaile ezberdinen aldetik proposatutako beste praktika egoki batzuk:

ESPERIENTZIA	JARDUERA	HARREMANA	KOKAPENA
ACAMEI Elkartea Las Palmas	Kulturarteko Bitartekaritzaren garapena eta hedapena, baita atzerritarren eta gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonen integrazioa erraztu ere	www.acei.org	Kanariar Irlak
Ekintzaitza Ekonomiko Solidarioen Inkubagailu Publikoa São Paulo	Bazterketa arriskuan edo egoeran dauden pertsonen ekintzaitza solidarioari laguntza (Ekonomia Sozial eta Solidariotik)	www.ecosolsp.com.br/incubadora	Sao Paulo, Brasil
Campo Papa Auzoa, Arco Iriz institutua eta Parrokia Eliza	Hezkuntza zentro komunitarioa, auzoko pertsona ahulentzat	www.fundacioncoloba.wordpress.com	Mendoza, Argentina
Esnetik S.Koop.	Esnekien ekoizpeneko eta kontsumoko kooperatiba mistoa	www.esnetik.com	Orozko, Bizkaia
Errekaleor (Gasteiz)	Okupa auzoa auto-eratua eta parte-hartzailea	www.errekaleorbizirik.org	Gasteiz

4.1. IKASKUNTZA KOMUNITATEAK. LEKEITIO ESKOLA

1. 1. EKIMENAREN LABURPENA

Lekeitio eskola Ikaskuntza Komunitate (IK) bat da. Ikaslego osoari kalitatezko hezkuntza bat eman eta guztien akademia arrakasta ziurtatzea bilatzen duen, gizarte-hezkuntza proiektu bat da. Eredu hau, egungo gizartean ikaskuntzaren, interakzioen eta Komunitatearen partaidetzaren elementu gako bezala nabarmentzen diren, nazioarteko teoria zientifikoekin adostasunean dago. Haur, Lehen eta Bigarren hezkuntzako mila zentro baino gehiagotan garatzen ari da (209 Espainian zehar eta 800 Latinoamerikan zehar). Lekeitio aukeratu dugu, 2000 urtetik lanean ari delako, Euskal Herrian (Erkidego aitzindaria) proiektua garatzen hasi zeneko lehenengo hezkuntza zentroetako bat delako, CREA ikerketa zentroaren (Bartzelonako Unibertsitatea) aholkularitzarekin, proiektu hau sustatzen duen ikerketa zentroa.

Ikaskuntza Komunitateak, hezkuntza komunitate bateko haur eta gazteekin erlazio bat duten pertsona eta kolektibo guztiak inplikatzeko ditu. Proiektua INCLUD-ED Europar Batasuneko Ikerketa Markoaren 6. Programaren barruan ikertu da, gizarte kohesiorako arrakastako jarduerak bezala Europan, hezkuntzaren bitartez (CREA 2006-2011). Komunitateak nahi duen eskolaren inguruan duen ametsetik abiatzen da eta elkarrizketaren eta zientziaren bitartez, eskola-porrota gaitzitzea eta elkarbizitza hobetzea ditu helburu. Kultura-anitza eta gizarte desberdinkerien gaitzitzea bezala definitzen da.

2. EKIMENAK INGURUNEAREKIN ETA KOMUNITATEAREKIN DUEN LOTURA ETA ERLAZIOA

IK Lekeitio Eskolan, komunitateen eta familien partaidetzaren eremuan, garatzen dira:

- “Batzorde Mistoak”: batzorde iraunkorra, eskola-jangelako batzordea, Eskola Agenda 21eko batzordea, hizkuntzen batzordea, kulturartekotasun batzordea, bizikidetzako batzordea, aniztasun batzordea.
- “Taldea interaktiboak eta elkarrizketa tertuliak”: ikasgeletan hezkuntza eragile ezberdinen partaidetza bultzatzeko.

- “Familia Batzarra, Eskola Kontseilua, gelako ordezkariak”: kudeaketa, erabaki eta partaidetza beste modu batzuk.

Estatuko eta nazioarteko Ikaskuntzako Komunitateen Sarearen barruan dago, eta ikaskuntzako komunitate berrien sorrerarako formazioarekin lankidetzako egiten dute. 2018 ikasturtean euskal eskola publikoaren festaren antolakuntzan parte hartzen du, ekainean herrian ospatuko den festaren antolakuntzan.

3. NOLA EGITEN DU LAN EKIMENAK, PERTSONA AHULENEN EDO BAZTERKETA EGOERAN/ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN INKLUSORAKO?

Bizikidetzaren hobekuntzarako garatzen da: Bizikidetzako elkarrizketa ereduak, komunitatearen eragile guztien artean adostua (ikaslegoa, irakaslegoa, familia, eragile komunitarioak); ikaslearen partaidetza tutoretzak, batzorde mistoak, batzarrak, ordezkari... bidez; jolastokiaren kolaboraziozko kudeaketa, baloirik gabeko

espazioen, jolas kooperatiboen... bidez. Guztion akademia hobekuntzaren helburuarekin, elkarrizketa metodologian oinarritutako hezkuntza eredu bat ere garatzen ari da, berritzailea, progresista, eraldatzailea (Freire), Talde interaktiboak, ikasgela bakoitzeko hiru irakasleek matematikak eta hizkuntza sustatzen dituzte; elkarrizketa bidezko literatura tertuliak euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez; tutoretza bidezko liburutegia eskolaz kanpoko ordutegian, behar duen ikaslearentzat. Eredua inklusiboa eta kultura-anitza da, ondorioz haurrek aukera berdina dituzte, norberaren egoera ezberdina izan arren. Irakaslearen, familiaren, boluntarioen eta jangelako, jolastokiko, eskolaz kanpoko jardueretako monitoreen formazioan ere eragiten da, hezkuntza planteamendu komun bat ziurtatzeko.

4. ZEIN DIRA EKIMENAREN LAN GAKOAK PERTSONEN INKLUSORAKO?

Lekeitioko eskola publikoa, herrian dagoen eskola publiko bakarra da. Beraz, bertako neska-mutil gehienak bertan ikasten dute (Ikastola bat ere badago, azken urteetan matrikula kopurua murriztu da), eta guztiontzako hezkuntza espazio bat bezala ulertzen da. Helburua haurtzararen hezkuntza hobekuntza lortzea da. Komunitateen proiektua aterki orokorra da, baina beste hainbat proiektu zehatz ere garatzen dira: eleaniztasuna, elkarbizitza, hezkidetzako normalizazio linguistikoa euskaraz, ikaskuntza kooperatiboa, haur hezkuntza talentu programa haurren gaitasunetan oinarritua; Eskola Agenda 21, zientzia proiektua ingelesez, ikaskuntzaren kalitatea, zentroen autonomia, elkarrekin. Elkarrizketa laguntzailea ingelesez, María Montessori haur hezkuntzan eta eskola Liburutegia.

5. EKIMENAK SAREAN LAN EGITEN AL DU? ZEIN SAREAN? NOLA?

Euskadiko Ikaskuntza Komunitateen sarean parte hartzen du, baita Ikaskuntza Komunitateen nazioarteko sarean ere. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Kalitatezko zentroen sarean dago.

6. EKIMENAK GENERO DIMENTSIOA KONTUAN HARTZEN AL DU? ZEIN NEURRITAN?

Eskola inklusiboa, demokratikoa eta kalitatezkoa bezala definitzen da. Mota guztietako desberdinkeriak gaitzitzeko konpromisoa onartzen du, eta bereziki genero desberdinkeriak, ondorioz, berdintasunean eta elkartasunean oinarritutako Proiektu integral bat garatzen du. Elkarbizitzako Proiektuaren esparruan, bi programa garatzen dira: hezkidetzako eta Elkarrekin. Hezkidetzako proiektua bereziki nesken eta mutilen arteko erlazioetan oinarritzen den bezala, ELKARREKIN Proiektuak ikasleek eta hezkuntza komunitateko kide ezberdinen arteko erlazioa beste modu batean planteatzen du. Bere helburua gatazkak konpontzeko, erantzukizunak onartzeko, zentzu kritikoz ekiteko eta ingurunea modu sortzailean eraldatzeko beharrezkoak diren gaitasunak indartzea da. Horretarako, Lehen Hezkuntzako maila guztietan garatzen diren hiru eremu daude, asteroko hiru edo lau saioen bitartez. ELKARREKIN ikuspegi komunitario batetik abiatzen denez, hezkuntza komunitateko eragile guztien partaidetza eskatzen du, hau da, irakaslegoa eta gainerako langileak, familia eta ikaslegoa, herriko kultura-kirol taldeak eta beste hainbat erakunde.

Lekeitio Eskolaren (LHI) 2016-2017 Eskola Gidatik jasotako informazioa.

4.2.

HASIERA PROIEKTUA

EKIMENAREN KOKAPENA

Bilbo. Hasiera Proiektua

GARATZEN DUEN ERAKUNDE MOTA

GKE, 1986 urtean Bilbon sortu zen. Hasiera Proiektua 2013 urtean sortu zen

JARDUERA SEKTOREA

GIB infekzioaren eta beste STI aurrean ahultasun handiko populazio taldeak

EKIMENAREN ONURADUN ZUZENEN KOPURUA

5, 3 emakume eta 2 transexual (zentroak 15 plaza ditu)

EKIMENAK BOLUNTARIOTZA PARTAIDETZA DUEN KASUAN, ZEIN DA KOPURUA?

Gizarte Hezkuntzako eta Psikologiako praktiketako ikasleagoa (Deustuko Unibertsitatea eta UPV/EHU) 4-6 urteko.

IRABAZI ASMORIK GABEKO EKIMENA?

Bai

EKIMENAREN WEB GUNEA

<http://blogs.vidasolidaria.com/comision-antisida-bizkaia/category/hasiera-2/>

1. EKIMENAREN LABURPENA

HASIERA proiektua 2013 urtean sortu zen eta eguneko zentro bat da, gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen gizarte akonpainamendura bideratua, Bizkaiko Foru Aldundiaren sarearen barruan eta Bizkaiko Comisión Antisida erakundeak kudeatua. Bertako profesional taldeak garatzen duen gizarte-hezkuntza jardueraren garapenerako, Jose Ubietok (Interxarxes Programa, Horta Guinardo, Bartzelona) garatutako, sareko kasuaren eraikuntzaren metodologia erabiltzen dute. Pertsona (kasu) bati arreta ematen dioten profesional guztiak elkarrekin eta kolaborazioko moduan lan egitea proposatzen da zerbitzu ezberdinetatik (buru-osasuna, gizarte, hezkuntza zerbitzuak).

Metodo honekin pertsona erdigunean kokatzen da eta pertsona horrekin lan egiten duten eragile ezberdinak gonbidatzen dira bertaratzerara eta aldika, pertsona horren egoeraren inguruan galdetzeko eta akonpainamendu moduaren inguruan erabakiak hartzeko, modu bateratuan eta koordinatuan. Burutzen den lana, buru-osasun komunitarioaren eremuan eragiten duela esan daiteke, gizarte-hezkuntzan, osasunean eta buru-osasunean

lankidetzak bat eskatzen duelarik. Arreta eskaintzen zaien kolektiboa etxerik gabeko pertsonak dira bereziki, eta horietako asko buru-gaixotasunekin. Bere jardueraren printzipioak hauek dira: pertsona bakoitzaren ezaugarriekiko errespetua, orientazio terapeutiko bat duen gizarte praktika bat da eta gizarte lotura bat sortzen duen giro bat errazten da. Zentroak auzoko eta sare ezberdinetako gizarte ekimenetan parte hartzen du.

2. EKIMENAK INGURUNEAREKIN ETA KOMUNITATEAREKIN DUEN LOTURA ETA ERLAZIOA

Egoitzatik, kolektiboen, auzoen eta pertsonen hiritartasun mugimendutik abiatzen diren, proiektu eta jardueraren anitzetan parte hartzen da. Pertsonak, beren gizarteratze prozesuan burutzen dituzten aurrerapenen gizarte errepresentazio bat direla ulertzen da. Adibide bezala aipatu daitezke, San Francisco-ko Azoka Solidarioan parte hartzea; Birziklatze Tailerrean, Noche Abiertan edo Gay Irekian gauzatutako obren erakusketa, jardueraren sozio-kulturalak multzokatzen dituen eta espazio publikoaren erabilera aldarrikatzen duen ekimena; aisialdi, kultura eta kirol tailerrak; munduko arrozak.

3. NOLA EGITEN DU LAN EKIMENAK, PERTSONA AHULENEN EDO BAZTERKETA EGOERAN/ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN INKLUSORAKO?

Aginte profesional galera bat sortzen duen asistentzia-dibertsifikazioaren aurrean, zentroak gizarte akonpainamendutik egiten du lana sarean, gizarteratzeak subjektu beraien partaidetza eskatzen duelako, gizarte ekintzaren protagonista bezala, eta pertsona horrekin lan egiten duten profesional guztiak ezin dute modu isolatuan egin. Horrek bazterketara eramaten du, edo ez gizarteratzerara. Tratamendua sarean izan behar dela kontsideratzen da, ondorioz kasuaren inguruko kontraste lan bat egitea eskatzen du, aurrez aurrekoa (inplikaturak dauden eragile guztien) eta denboran iraunkorra, aldizkako bilarekin kasua eraikitzen joateko, batzuen eta besteen posizioak kontuan hartuz. Subjektuak berak eraikitzen duen sarea da, berak dituen behar eta eskaeren arabera. Profesionalak interpelatzen dituen galdera gako hau da, zer eskaini diezaioket pertsona horri? Eta nola egin dezaket lankidetzak? Pertsonaren egoera guztiak konpondu behar duten enigma bat bezala eratzten da.

Baina ez da modu indibidualean soilik lan egiten, auzoko eta komunitateko jardueretan ere parte hartzen da, bertako kide direla sentitzeko edo sentimendu horretara iristeko. Adibide bezala, pertsonak argazki-makina bat eramaten badu argazki-tailer bat montatzen da, kolektibo artistiko batekin lankidetzak egiten da, modu horretan, pertsonak bere argazkiak erakutsi eta komunitatean partekatu ditzake.

4. ZEIN DIRA EKIMENAREN LAN GAKOAK PERTSONEN INKLUSORAKO?

Gako nagusia sare-lana da; baina garatzen duten ekintza, pertsona eskubideen eta betebeharren hiritar bezala onartzea laguntzen duen jardueretan zehazten da. Kultura gizarteratzeko modu bat bezala pentsatzeko jardueren artean, irakurketa tailerra dago. Kulturara gerturatzea posible egiten du, gizartearen eta kulturaren barneratzerako laguntzen duen oinarri eta euskarri bezala. Horrez gain, irakurketara gerturatzea posible egiten du,

gizartera barneratzeko bidea bezala. Gizartearen dauden informazioaren eta komunikabideen ulermena, pertsonak jasotzen duen informazioaren inguruan ahalduzkoa posible eginez, modu kritikoa batean. Era berean, sozializazio modu bat da, izaera ezberdineko gizarte espazioak (erabilera komuneko espazioak) erabiltzen diren neurrian, auzoko zentro zibikotik hasi eta espazio irekiak ere erabiliz.

5. EKIMENAK SAREAN LAN EGITEN AL DU? ZEIN SARETAN? NOLA?

Wikitoki sarean parte hartzen du, batzar moduan lan egiten duen elkarteetan, kooperatiben eta pertsonen sare bat. Bertako beren baliabideak Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabalaren partekatzen ditu.

6. EKIMENAK GENERO DIMENTSIOA KONTUAN HARTZEN AL DU? ZEIN NEURRITAN?

Pertsona erdigunean kokatuz lan egiten denean, bere ezaugarriak eta xehetasunak kontuan hartuz, bakoitzaren ezaugarri horiek errespetatzea egiten da. Generoa, arraza, etnia, adina gaiak modu integralean lantzen dira bakoitzaren ezaugarriak direlako, estigmatizatzen ez eta kategorizatzen ez dituzten ezaugarriak. Arazo anitz dituzten pertsonekin egiten da lan, eta bakoitzaren indibidualtasunetik abiatzen da, ondoren ekintzak kolektiboa den horretara proiektatzeko, biek gizarte-hezkuntza prozesu beraren parte direlako.

4.3. SILVESTRE QUELANTARO ERRESERBA-NIKARAGUA

EKIMENAREN KOKAPENA

Pochomil-era galtzada-harrizko errepedeko 46 Km, 4.8 km Managua hego-ekialdera, Nikaragua

GARATZEN DUEN ERAKUNDE MOTA

Silvestre Quelantaro Erreserba

JARDUERA SEKTOREA

Ingurumena eta Turismoa

EKIMENAREN ONURADUN ZUZENEN KOPURUA

7 komunitate 6000 pertsona %58 emakume %42 gizon

EKIMENAK BOLUNTARIOTZA PARTAIDETZA DUEN KASUAN, ZEIN DA KOPURUA?

300 boluntario urteko %95 emakumeak %5 gizonak

IRABAZI ASMORIK GABEKO EKIMENA?

Bai

EKIMENAREN WEB GUNEA

Fb: Reserva Silvestre Quelantaro / Instagram: reservaquelantaro

1. EKIMENAREN LABURPENA

Silvestre Quelantaro Erreserba: Nikaraguar pazifikoan baso lehorreko hain mehatxatua dagoen ekosistemaren baliabide naturalak kontserbaziora bideratua dagoen sail babestu bat da. Gure lana ingurumen sentibilizazio jarduerak sustatzea, ikerketa zientifikoak gauzatzea, gazteen eta emakumeen artean ekintzailatza sustatzea, ekoturismoa garatzea, gaitasunak sendotzea, oinarritzko zerbitzuen proiektuak dira, besteak beste.

Gure lana instituzio publiko zein pribatuekin batera doa, komunitateekin batera. Modu horretan, denboran zehar ekintzen iraunkortasuna bermatzen da. Erreserbatik modu horizontalean lan egiten da, modu horretan aktore guztiak, komunitateetan ematen diren arazoei erantzuna emateko proiektu txiki horien gauzatzean erantzukizuna hartzen dute. Oinarritzko beharrak dituen komunitate batek, baliabide naturalen kontrako presioa murrizten duela uste dugu.

Gure lan egiteko modua ezberdina da, Nikaraguan gainerako baso-erreserbei dagokionez. Ondorioz, tokiko, udal eta nazional mailan leku bat hartzera eraman gaitu, gure herrialdean ekoturismoan erreferente bat izanez.

2. EKIMENAK INGURUNEAREKIN ETA KOMUNITATEAREKIN DUEN LOTURA ETA ERLAZIOA

Gure lana komunitatearen aktore guztiak batera burutzen da, haurrak, gurasoak, irakasleak, lider komunitarioak, lider erlijiosoak eta komunitateen garapen jarduerekin zerikusia duten pertsona guztiak.

Pertsona guztien partaidetza ez badugu, komunitateetan egiturazko aldaketak ezin daitezkeela eman kontziente gara. Hori horrela izanik, komunitatean garatzen den ekintza bakoitzaren ahalduntze horretan eragiten saiatzen gara. Benetan garrantzitsua da pertsonak antolatuta eta ahaldunduta egotea, denboran zehar ekintzen iraunkortasuna bermatzen dutelako.

3. NOLA EGITEN DU LAN EKIMENAK, PERTSONA AHULENEN EDO BAZTERKETA EGOERAN/ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN INKLUSORAKO?

Ez dugu inklusioko politika zehatzik, hala ere, gure lana integrala da, lan egiteko, ikasteko, parte hartzeko, etab. gogoia duen edozein pertsona beti ongietorria da gure proiektuetara.

Ingurumen-hezkuntzako gure programetan gaitasun ezberdineko hainbat haur dugu. Haur hauek burutzen ditugun prozesu guztietan parte hartzen dute eta gainerako haurrak bezala lan egiten dute, modu berdinean.

Ura, osasuna, hezkuntza proiektuetan pertsona adinduekin, emakumeekin, gizonekin, gazteekin eta haurrekin lan egiten da. Modu horretan, proiektu horiek bereak bezala ikusiak dira eta ez da inoren bazterketarik egiten. Ederra da ikustea komunitarioak modu berdinean lan egiten, ongi komun bat lortzeko.

Ikerketa zientifikoko programetan langileak modu integralean gaitzen dira, beraiek gure izaeraren inguruan ikasi eta ezagutu nahi duten guztia.

Modu sendoan uste dugu, garapena guztien erantzukizuna dela eta komunitateko pertsona bakoitzak desiratutako jasangarritasuna lortzeko paper garrantzitsua duela.

4. ZEIN DIRA EKIMENAREN LAN GAKOAK PERTSONEN INKLUSORAKO?

Gure lanaren gakoa proiektuen definizioan dago. Proiektu hauek komunitateak lehenesten ditu, konpontzeko beharra garrantzitsua dela uste duten proiektu horiek guztiak dira lehentasuna dutenak.

Ondorioz, komunitateko pertsonak parte hartzaile izan nahi dute, beren komunitateen garapen prozesuetako aktore aktibo bezala.

Guk ez dugu X edo Y pertsonaren inklusioa edo ez inklusioa garapen prozesuetan, lehentasuna ematen duena komunitatea da, prozesu hauetan parte hartzea erabakitzen dutenak pertsonak dira. Zergatik? Proiektuak beraiek erabaki dituztelako, beraiek erabaki dute behar bat konpondu edo asetzea, guk baliabideen kudeaketan soilik kolaboratzen dugu eta beraiek konpromiso horiek onartzea egiten dugu.

Nikaraguan nazioarteko lankidetzako esperientzia asko dago, ikasitako ikaskuntza asko utzi dituelarik. Ikaskuntza horietatik, orain, egokiak eta desegokiak har ditzakegu guk burutzen dugun horren arabera.

Adibidea:

- Eskuarki programak edo proiektuak mahaietan formulatzen dira, landa komunitateen idiosinkrasia ezagutzen ez duten pertsonak. (Akats komunetako bat)
- Komunitatearentzat behar edo lehentasun bat den kontsultatu gabe diseinatzen dituzte proiektuak (beste akats komun bat).
- Komunitateetan ez dira gizarte oinarriak sortzen, emaila-onuradun loturak sortzen dituzte, baina ez dago egiazko konpromisorik komunitateen ahalduntzea posible egiten duenik beraien onurarako garapen prozesuetan; denboran zehar mantentzeko konpromisorik ez dago, hauek onura bat jasotzen dute soilik, baina gauzatzearen aurreko etapetan ez dira kontuan hartuak izan.

5. EKIMENAK SAREAN LAN EGITEN AL DU? ZEIN SAREAN? NOLA?

Sare ezberdinetan egiten dugu lan:

Ikerketa arloan: Laúd dortokaren bare pazifiko mendebaldearen sarean (LAUDOPO)

Hegazti migratzaileen eta bertakoen monitoretza mesoamerikar sare (MoSI)

Nikaraguako Baso erreserba pribatuen sare (RED)

Tokiko ekoturismo zirkuitua Quelantaro Erreserba – Playas Vírgenes

Nikaraguako Gida Turistikoaren Sarea

Kideak gara eta datu baseak elikatzen ditugu nazional eta nazioarteko mailan garatzen diren ikerketa ezberdinekin.

6. EKIMENAK GENERO DIMENTSIOA KONTUAN HARTZEN AL DU? ZEIN NEURRITAN?

Beste atal batean aipatu dugun bezala, familiarekin, haurrekin, gazteekin, helduekin, hirugarren adineko pertsonekin, gaitasun ezberdinak dituzten pertsonekin modu integralean lan egiten da, ama bakarrei, emakume gazteei proiektuak eskaintzen zaizkie, besteak beste. Era berean, garatzen ditugun ekitaldietan emakumearen partaidetza estatistikak gauzatzen ditugu. Zerrendak egiterako garaian emakume eta gizonen artean bereizketa egiteak, ekitaldietan bi sexuen partaidetzaren erregistroa eramatea posible egiten du.

4.4. BIZKAIGANE

EKIMENAREN KOKAPENA

Errigoiti (Bizkaia)

GARATZEN DUEN ERAKUNDE MOTA

Kooperativa

JARDUERA SEKTOREA

Elikadura (esnekiak)

EKIMENAREN ONURADUN ZUZENEN KOPURUA

Errigoitiko tokiko ingurunea (Bizkaia)

EKOIZLE KOPURUA, DAGOKION KASUAN

3 emakume / 6 gizon

IRABAZI ASMORIK GABEKO EKIMENA?

Bai

1. EKIMENAREN LABURPENA

Bizkaigane kooperatiba Errigoiti goian kokatua dago. Bizkaigane esneki ekologikoak ekoizten ditu behi eta ardi esnearekin. Proiektua duela 35 urte sortu zen eta 97/98 urteetan kooperatiba ekologikoan bihurtu zen. Bere ekoizpena estentsiboa da eta lurrari lotutako abeltzaintza bat planteatzen du, tratamendu kimikorik gabe, animalien pentsua ekologikoa da eta tratamenduak homeopatikoak. Produktu aldaera eta aniztasun zabala du, horrek lan gehiago eman arren, beren salmentarako oinarria dela uste dute. Partaide guztien artean ekoizpena kudeatzen dute. Bakoitzak ahal duen neurrian erantzukizun bat du eta horrela ateratzen dute lana aurrera egunetik egunera. Salmenta zuzena da tokiko ingurunean, kontsumitzaileak inguruko pertsonak dira eta salmenta Mungia eta Gernikako inguruneetara bideratzen dute nagusiki.

2. EKIMENAK INGURUNEAREKIN ETA KOMUNITATEAREKIN DUEN LOTURA ETA ERLAZIOA

Bizkaiganeko produktuen salmenta 30 urte inguru daramatza, ondorioz, kontsumitzaile kopurua altua da. Tokiko ingurunean kooperatiba oso ezaguna da eta auzotarrek oso balioztatzen dute. Beste alde batetik, kooperatiba osatzen duten pertsonak gertukoak dira eta ingurukoak. Salmenta zuzena edo gertuko azoka edo plazetan egiten dutenez, ekimena oso lotua dago komunitatearekin. Horrez gain, abeltzaintzaren lana duin bihurtzen eta ikustera ematen du, kontzientzia hartuz eta elikadura burujabetzaren aldeko baloreekin lan eginez.

3. NOLA EGITEN DU LAN EKIMENAK, PERTSONA AHULENEN EDO BAZTERKETA EGOERAN/ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN INKLUSORAKO?

Bizkaigane pertsona ahulenen bazterketa ez du zuzenean lantzen, baina bai egiten du lan integratzaileko sektorean eta ekologian hurrekin, gazteekin eta interesa duen edozein pertsonarekin. Kontsumo taldeen bitartez aldizkako ibilaldiak burutzen ditu bere ustiapenera. Bizkaigane oso ezaguna den kooperatiba bat da, beraz, bisita kopuru asko jasotzen ditu. Inguruko ikastetxe ezberdinek beren ikasleak eramaten dituzte, esneki sektore ekologikoak nola funtzionatzen duen ezagutzera, bertan gazta nola egiten den eta ekimenean egunetik egunera nola egiten den lan ikasten dute. Beste alde batetik, gazteak sektoreak barneratzearen alde lan egiten du, lan irteera bat bezala eskainiz. Bizkaigane gazteei aukera eskaintzen die beren lanerako-praktikak beraiekin gauzatzeko, Derioko “Nekazaritza Eskolako” ikasleek egiten duten bezala. Azkenik, kooperatibak emakumeen integrazioa ere landu du hain maskulinizatua den sektore honetan. Duela hamabi urte kooperatiba gizonak bakarrik osatzen zuten, egun hiru emakume daude.

4. ZEIN DIRA EKIMENAREN LAN GAKOAK PERTSONEN INKLUSORAKO?

Aurretik aipatu dugun bezala, integratzaileko gakoak, ekimenak duen ibilbidea eta esperientzia dira nagusiki, oso ezaguna izanez eta modu honetan, interesa duten pertsonen arreta deitzen du. Ibilaldi eta lanerako-praktiken eskaintza bidezko ekimenak gazteak, haurrak eta esnekien sektorean interesa duten pertsonak barneratzen saiatzen da. Hala ere, ez du integratzaileko soilik bilatzen, ekologikoa eta tokikoa den hori kontsumitzaileen aldeko kontzientzia sortzea ere bilatzen du.

5. EKIMENAK SAREAN LAN EGITEN AL DU? ZEIN SARETAN? NOLA?

Bizkaigane kontsumo taldeen eta plazetako eta azoketako salmenta zuzenaren bidez lan egiten du. Kontsumo talde ezberdinekin egindako sare-lanari esker, bere produktuak kontsumitzaile desberdinei saltzen dizkie eta kooperatiba ekologikoaren bere proiektua ezagutzera ematen dute. Horrez gain, ikastetxeekin ere lan egiten dute hurren kontzientziatzailean, beren ustiapenari bisitak eskainiz, modu honetan inguruko hezkuntza instituzioekin sarea sortzen da. Beste sare nagusietako bat inguruko nekazaritza eskolekin sortua da, hauekin gazteen lanerako-praktikak lantzen ditu.

6. EKIMENAK GENERO DIMENTSIOA KONTUAN HARTZEN AL DU? ZEIN NEURRITAN?

Kooperatiba talde bezala lanean hasi zenean, taldea gizonen soilik osatzen zuten, beraiek ziren erabakiak hartzen eta ustiapena modu bateratuan kudeatzen zutenak. Hainbat kideen aldetik, beti izan da emakumeak kooperatiban sartzearen aldeko kezka edo erronka, sektorea hain maskulinizatua ez izateko. Duela urte asko hainbat emakume taldean sartu zen eta egun beraiekin egiten dute lan, ekimen misto batean bihurtuz.

4.5. GIZARTE-RATZEKO BITARTEAN PROGRAMA

EKIMENAREN KOKAPENA

Gámiz-Fika

GARATZEN DUEN ERAKUNDE MOTA

Irabazi asmorik gabeko fundazioa

JARDUERA SEKTOREA

Gizarteratzea

EKIMENAREN ONURADUN ZUZENEN KOPURUA

24 plaza urteko iraunkorrak

EKIMENAK BOLUNTARIOTZA PARTAIDETZA DUEN KASUAN, ZEIN DA KOPURUA?

50-60 pertsona inguru urteko, aldizkako moduan

IRABAZI ASMORIK GABEKO EKIMENA?

Bai

EKIMENAREN WEB GUNEA

www.emaus.com

1. EKIMENAREN LABURPENA

Bitartean Programa, Emaús Gizarte Fundazioaren gizarte sailaren barruan garatzen da 2000 urtetik aurrera, Gamiz-Fikan, Bizkaian. Programaren **helburua**, alkohola edo beste sustantzia batzuen menpekotasunaren edo gizartean funtzionamendu egoki bat izateko beharrezkoak diren Trebetasun Sozialen gabeziaren ondorioz beren egoera larriagotua ikusten duten, gizarte bazterketa egoeran edota arriskuan dauden pertsonen **izaera integraleko arreta etengabe** bat eskaintzea da. Hau da, laguntza egokiko egitura baten bidez aurkeztutako arazoak eusten edo murrizten laguntzea, eta gizarte integrazio hobeago bat posible egitea.

Oinarrizko bizi beharren estaldura kontuan hartzen duen baliabide bat da eta pertsona horiek aurkezten dituzten gabezia sozialak, psikologikoak, familiakoak, emozionalak, formazio eta lan gabeziak sendotzen ditu, beren gizarteratze bidean gaituz eta orientatuz. Programak iraupen luzeko egonaldi bat eskaintzen die gizarte bazterketa egoera larrian dauden 18 urtetik gorako pertsonen.

2. EKIMENAK INGURUNEAREKIN ETA KOMUNITATEAREKIN DUEN LOTURA ETA ERLAZIOA

Bitartean programa kokatua dagoen Gamiz zentroa, bazterketa egoeran dauden pertsonen inklusioaren alde egiten du lan nagusiki. Horretarako, eragile ezberdinen erlazioa bilatzen du, ez instituzioko eragileak soilik, elkarte, formazio, familia, osasun, boluntario, etab. eragileak. Modu honetan, garapen komunitarioaren aldeko apustu bat egiten da, baita Bitartean programan bizi diren pertsonen gizarteratzea errazten duen ikuspegi orokor bat mantentzea ere.

Programak ondorengo zerbitzuak eskaintzen ditu: Abegi eta egoitza, akonpainamendu psiko-afektiboa, konpetentzia eta trebetasunetan gaitzea eta lan orientazioa.

3. NOLA EGITEN DU LAN EKIMENAK, PERTSONA AHULENEN EDO BAZTERKETA EGOERAN/ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN INKLUSIORAKO?

Bitartean programak eguneroko lanean oinarritutakoak diren hainbat gako maneiatzen ditu pertsonekin, horrela laburbiltzen da:

- Eskubideak abiapuntu bezala: “helburua eta bitartekoak”;
- Pertsonak erdigunean;
- Helburua: pertsonen bizitza kalitatea,
- Estrategiak: inklusio aktiboa eta gizarte partaidetza;
- 3 metodologia-gakoak: koordinazioa, ebaluazioa eta genero ikuspegia.

Programa zortzi arloren inguruan egituratzen da: Soziala (kasu sozial indibidualaren kudeaketa), formazio-tailerrak (okupazio- eta trebezia eta abilezia tailerrak), norberaren autonomia (norberaren autonomia eta komunikazio eta soziabilitate gaitasunen garapena sendotzera bideratutako esku-hartze indibidualak; aisia eta denbora librean hezkuntza), bizikidetasuna (egunerokotasuneko jarduerak), psikologikoa (prozesu terapeutikoen jarraipena) eta familiakoa (famiarekin erlazionatutako alderdiak, pertsonen eskaeraren arabera).

4. ZEIN DIRA EKIMENAREN LAN GAKOAK PERTSONEN INKLUSIORAKO?

Pertsonen inklusiorako gako bezala daude: lan indibiduala (abegia eta akonpainamendua), formazioa (egunerokotasuna eta formazio-tailerrak), pertsonaren orientazioa eta jarraipena beren beharren arabera, estigmatizatu gabe eta hiritar bezala dituen eskubideak errespetatuz, egunerokotasunaren eta bizikidetzaren dimentsio soziala, erlazioa ingurunearekin eta herriarekin, beste erakunde ezberdinekin sare-lana, eta belaunaldi-arteko lana. Nabarmentzen dugu, adibidez, gazteekin burrututako landa-lanak, belaunaldi-arteko erlazioak sortuz jakintzak elkar banatuz, beste modu batera oso zaila izango bailitzateke.

5. EKIMENAK SAREAN LAN EGITEN AL DU? ZEIN SARETAN? NOLA?

Bitartean Beste bi, Foro Voluntariado, Gizardatz... bezalako sareen parte da. Bitartean osatzen duten pertsonen (profesionalak eta partaideek) unibertsitateekin, bigarren hezkuntzako zentroekin, Landide Heziketako zentroekin... elkarrekintza gauzatzen dute, formazioa eta sensibilizazio hitzaldiak, gizarte bazterketaren inguruan prebentzioa eskainiz. Aurten, bi lankidetzak hitzarmen interesgarri sortu dira, bat Derioko Nekazaritza Eskolarekin, zentroaren inguruko espazio naturalak berreskuratzen eta mantenu lana eginez eta bestea Mungiako PCPI zentroarekin, elkarrenganako trukaketako jarduerak erraztuz, hasiera batean ezberdinak diren bi errealitate elkarbizi direlarik eta modu bateratuan eraikitzen dutelarik.

6. EKIMENAK GENERO DIMENTSIOA KONTUAN HARTZEN AL DU? ZEIN NEURRITAN?

Bitartean zentroko eguneroko jardueran, arreta gizonei zein emakumei eskaintzen zaie, sexu bakoitzaren egoera eta interes desberdinak kontuan hartuz eta beraz, errealitate ezberdinetara egokituz, genero berdintasun gakoan. Gizarte Hezkuntzako ikasleriarekin esperientziak gauzatu dira, zentroan genero diagnostikoak garatzeko helburuarekin. Horrez gain, langile teknikoei generoaren gainean formazioa ematen zaie.

4.6. MAKI FAIR TRADE RED PAKARIÑAN ECUADOR

EKIMENAREN KOKAPENA

Cuenca, Azuay probintzian (Ekuador)

GARATZEN DUEN ERAKUNDE MOTA

SAREA, erakundea, erakunde komunitarioz eta ekonomia solidarioko ekintzailtzaz osatua jarduera turistikoari lotuak, Cañar, Azuay eta Loja probintzietan, Ekuador hegoaldean

JARDUERA SEKTOREA

Turismo komunitarioa eta bidezko merkataritza

EKIMENAREN ONURADUN ZUZENEN KOPURUA

15 emakume eta 2 gizon

EKOIZLE KOPURUA, DAGOKION KASUAN

13 emakume

EKIMENAK BOLUNTARIOTZA PARTAIDETZA DUEN KASUAN, ZEIN DA KOPURUA?

25 pertsona inguru

IRABAZI ASMORIK GABEKO EKIMENA?

Ez

EKIMENAREN WEB GUNEA

www.pakarinan.com

1. EKIMENAREN LABURPENA

Pakariñan Sarea 2005 urteko irailak 2an sortutako erakunde bat da, San Joaquin-eko landa parrokian (Cuenca, Azuay), erakunde komunitarioz eta **ekonomia solidarioko ekintzailtzaz osatua** jarduera turistikoari lotuak, Cañar, Azuay eta Loja probintzietan, Ekuador hegoaldean. Horrez gain, Ekuadorreko Ekonomia Sozial eta Solidarioko Mugimenduko (MESSE) kide gara. Gure izena bi izenen loturatik dator, Pakarina eta Ñan -kañari/kichwa hizkuntza- euskaraz “Egungentzaren Bidea” esan nahi du. Gure lana posible da erakunde komunitarioen oinarri bati esker, oso ezberdinak diren beren errealitateekin balioztatuz ezin diren ezagutza enpirikoak ematen dizkigu; bazkide, instituzio eta erakunde senide sare bat, helburu eta printzipio komunekin; gure enpresek eta gizarte ekintzailtzek (Pakariñan Expeditions eta Maki Fair-Trade) auto-eraketaren bitartez, ondasunen (artisauak) eta zerbitzuen (turistikoak eta garapenerako aholkularitza) elkar trukaketako prozesuak errazten dituzte;

baita profesional, kolaboratzaile eta boluntarioen diziplina anitzeko talde bat ere, bakoitza bere trebezia, ezagutza, afizio eta gaitasunekin, proiektu edota ekimen bakoitzaren helburuak lortzeko ekarpenak egiten ditu.

2. EKIMENAK INGURUNEAREKIN ETA KOMUNITATEAREKIN DUEN LOTURA ETA ERLAZIOA

Azuay Probintzian artisautzako bidezko merkataritza lehenengo dendaren sorrerak eragin positiboa izan du hirian. Lehen ez zen bidezko merkataritzaz hitz egiten eta orain Fair Trade (bidezko merkataritza) merkaturatzeko zirkuitu laburreko eredu batean bihurtu da, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko topaketa leku batean bihurtu da. kontzeptua komunitatean barneratua dago eta Cuencarako turismo Fundazioa bezala artikulatu diren erakundeetan, Turismo Ministerioa eta Inklusio Sozioekonomikoko Ministerioa, besteak beste.

3. NOLA EGITEN DU LAN EKIMENAK, PERTSONA AHULENEN EDO BAZTERKETA EGOERAN/ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN INKLUSIORAKO?

Pakariñan-en gure misioa lurraldeen, komunitateen eta turismo komunitarioa eta bidezko merkataritza lotutako erakundeen garapen integrala sustatzea da Ekuadorren. Herrialde hau, modu arduratsuan erabili ez diren aukerez eta giza eta natura baliabideez betea dago. Modu jasangarrian elkar bizi nahi dugu, beste pertsonen bizitzaren aurka, eta gure ingurunearekin beti existitu behar den orekaren aurka egiten ez duten printzipioetan, baloreetan, jarreretan eta ekintzetan oinarrituz. Horrela, gure lan estrategia sarean lan egitean eta pentsatzean oinarritzen da, asoziazioa sendotuz, emakume taldeak ahaldunduz, kontsumo kontziente bat sortuz eta entitate publikoak artikulatuz, produktu hauen merkaturatzea sendotzeko. Horrez gain, Sareak bere lana garatzen du ondorengo baloreetatik:

- Bikaintasuna: Egiten dugun gauza bakoitzean gure ahalegin, profesionaltasun eta dedikazio guztia jartzen dugu.
- Etika: Gure erabaki guztiak erantzukizunear, zintotasunear eta gardentasunear oinarritzen dira.
- Konpromisoa: Komunitatearekin, gure erabiltzaileekin eta nola ez, gure kolaboratzaileekin.
- Gertutasuna: Gure erabiltzaileak ez dira bezeroak, beren ametsak gurekin partekatzen duten lagunak baizik.
- Elkartasuna: Bestea zaindu, guztion artean edozein zailtasun gainditzeko.
- Hobekuntza etengabea: Egunetik egunera hobeak izan gaitezke -eta izan behar dugunaren- printzipioaren baitan lan egiten dugu.

4. ZEIN DIRA EKIMENAREN LAN GA-KOAK PERTSONEN INKLUSIORAKO?

Sarearen ekimen hau Saraguro, Chordolec, Gualaceo, Biblian, Riobamba eta Guaranda landa guneean gauzatzen da eta gure jarduera tokian bertan gaitasunen garapenean xedatzen da, produktuen berrikuntzan, produktuen elaboreazioan eta antolakuntza ahaldunduz. Maki Fair Trade-k hainbat produktu eskaintzen ditu: arropa, osagarriak, bitxiak eta dekorazioko produktuak. Zerbitzuei dagokionez, trebakuntza eta akonpainamendua eta bidezko merkataritzako sareetan asoziazioeko salmenta

ere garatzen ditu. Trebakuntza hau Pakariñan saretik kanpo dauden taldeei ere eskaintzen zaie, baina beti sarera talde berriak artikulatzen saiatuz.

Kontuan izan behar da, produktu hauen fabrikazioa, banaketa eta salmenta tokiko inguruko pertsona kaltetuen esku dagoela, bereziki emakumeen esku, ondorioz hauen inklusioan lagunduz, bai maila ekonomikoan bai komunitarioan.

Formazioko metodologia orokorrari dagokionez (turismoa, merkaturatzea...) helduentzako herri-hezkuntzako estrategian oinarritua dago (pertsona bideratzaileak ez ditu ezagutzak modu zakarrear ematen, hausnarketa, elkarrizketa eta eguneroko teoria eta praktikaren arteko topaketaren bidez partekatzen eta “erein” egiten ditu baizik). Honek aspirazioak ezagutzea posible egin zuen, kezkak argitzea, alternatibak aztertzea eta ekonomia sozial eta solidarioaren printzipioetan oinarrituz kudeaketa turistikoko proposamenak eraikitzea modu parte-hartzailean. Era berean, turismo komunitarioaren sustapenarekin konpromisoa duten liderrak identifikatzea posible egin zuen, etorkizuneko kudeatzaile turistikoaren eta prozesuaren sustatzaileak eta errepikatzaileak izango direlarik.

5. EKIMENAK SAREAN LAN EGITEN AL DU? ZEIN SAREAN? NOLA?

Ekimena bere baitan sare bat da. Hala ere, beste sareekin burututako artikulazioa aipatzea garrantzitsua da, bereziki ekonomia solidarioa eta bidezko merkataritza. Ekuadorren garrantzitsua da MESSERekin (Ekuadorreko Ekonomia Sozial eta Solidarioko Mugimendua) gauzatuak lana nabarmentzea, artikulazioa eta mugimendu honetako entitateekin partekatzea laguntza handia izan da, ikaskuntza kolektiboko eta lankidetzako terminoetan.

6. EKIMENAK GENERO DIMENTSIOA KONTUAN HARTZEN AL DU? ZEIN NEURRITAN?

Ekimena osatzen duten gehienak emakumeak dira. Hori horrela, bere boterea aipagarria da ahaldunduz ekonomikoari dagokionez, baina ez arlo horretan bakarrik. Ahaldunduzaren terminoetan aurrerapenak ematen dira beste dimentsioei dagokionez, ez emakumeen dimentsio ekonomikoari dagokionez bakarrik. Ildo honetatik, liderak formatzeko espazio paregabea da.

4.7. MICC ASOCIACIÓN DE INTEGRACION CAMPO-CIUDAD

EKIMENAREN KOKAPENA

Sao Paulo Probintzia, Brasil

GARATZEN DUEN ERAKUNDE MOTA

Irabazi asmorik gabeko erakundea

JARDUERA SEKTOREA

Agroekologia Tokiko garapen / sozio-ekonomikoa / Formazioa

EKIMENAREN ONURADUN ZUZENEN KOPURUA

700 familia kontsumitzaile (%55 emakume eta %45 gizon)

IRABAZI ASMORIK GABEKO EKIMENA?

Ez

EKIMENAREN WEB GUNEA

www.micc.org.br

1. EKIMENAREN LABURPENA

Asociación de Integración Campo Ciudad (MICC) Elkartea, bereziki tokiko familia-nekazaritzatik datozen barazki osasungarrien merkaturatze eta kontsumo justu eta solidarioagatik lan egiten duen ekimen bat da. Elkartea kontsumitzaile taldeek osatzen dute eta auto-eraketa eta ekonomia solidarioaren printzipioetan oinarrituz antolatzen da.

1986 urtetik sortua, lurraren balorazioa eta landa eta hiri eremuen arteko integrazioa sustatzen du. Elkartearen helburua, hirian bizi diren pertsonen beren hornikuntzak mantentzeko behar dituzten landa produktuak eskura ditzaten eta nekazariak beren salmentatik bizi daitezen da. Hori horrela, elikadura espekulazioa eta bitartekarien ekintza saihesten da, barazki osasungarriak eskainiz komunitateetako ekoizleen eskutik zuzenean eta prezio baxuagoan. Modu horretan merkatu eta kontsumo justu eta solidario bat lantzen dira. Horrez gain, nekazari txikiei laguntzen zaie beren propietateak mantentzen. Ekimenak, inplikaturako eragile guztiek bizitza osasungarriago bat izatea bilatzen du, natura errespetatuz. Horretarako,

ondorengo oinarrizko printzipioak kontuan hartzen dira: lankidetzaren demokratikoa antolatutako taldeen artean (kooperatibismoa eta ekonomia solidarioa), berdintasun solidarioko kontzientzia, elikadura naturala osasun iturri bezala eta komunitateko liderren formazioa.

2. EKIMENAK INGURUNEAREKIN ETA KOMUNITATEAREKIN DUEN LOTURA ETA ERLAZIOA

MICC elkartearen oinarria kontsumitzaileak dira, bereziki ingurune baxu baxuaren kontsumitzaileak. MICCCen esperientzia erreferentea da garatzen duen arloan. Ekimena bera, baita bere helburuak ere, Internet bidez pertsona askorengana iristen dira, era berean, eremu ezberdinetako ikertzaileek kontsultatzen dituzte. Ekimenak udal gobernuarentzat erreferente izaera du, onarpenaz gozatzen du, ondorioz, hiritarren eskaeren aldeko borroka sendotzen du, kontseiluak bezalako eztabaidako espazio publikoetan. Horrez gain, MICC kontsumo arduratsuko beste talde batzuen inspirazio iturri da, Kontsumo Arduratsuko Taldeen Brasildar Sarearen barruan, hala ere, artikulazioak

nazional mailan ez ditu ekintza zehatzagoak garatu orain arte. Zentzu honetan, artikulazio potentzial bat existitzen dela uste dugu, adibidez, erosketa bateratuetan, “castanhas de Brasil” kasuan bezala, Brasildar Sareak gertuko kontsumitzaile talde ezberdinen arteko eskualdeko taldekatzea posible egin zuen.

Beste alde batetik, bere egoitza kokatua dagoen auzoan, MICC elkartea gizarte artikulaziorako eragile bat bezala hartzen da. Zentzu honetan, hiru urtetan zehar MICC elkartek, auzoko eskaera baten artikulazio eragile bezala, tokiko irrati bat jarri zuen abian “Radio Tierra”. Irratsaioetan auzoko egituraren hobekuntza eskaerarako espazio bat zegoen, eta berehala gauzatzen ziren.

3. NOLA EGITEN DU LAN EKIMENAK, PERTSONA AHULENEN EDO BAZTERKETA EGOERAN/ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN INKLUSORAKO?

Inklusioa bai hirian bai landa eremuan gertatzen da. Landa eremuan, ekoizleekin lankidetzaren egiteak salmenta prezio justuago bat egitea posible egiten du. Ekoizleekin lankidetzaren laurogei hamarkadatik burutzen da, garai hartan, elkartek Iperó-ko ekoizleen asentamenduko prozesua lagundu zuen. Ekoizle txikiaren eremua nahikoa baztertua dagoen eremu bat da, nekazaritza erreformaren nekazaritza finkatuarekin alderatuz (adibidez, oinordekoek ez dute eskubiderik lurra oinordetzan hartzeko).

Beste alde batetik, MICC elkartearen partaide kontsumitzaile gehienak (guztiaren %90 inguru) klase baxuetan daude. Bai elikadura osasungarriko otarrak bai ikastaroak, klase baxuko biztanle hauen zat eskuragarriak dira. Kontsumitzaileek elikagaietan gutxiago kontsumitzen badute, beste gauza batzuk erosteko aurrekontua dute eta horrela, klase baxuetako pertsonen kasuan desberdintasun handia zehazten du. Hau da, kalitatezko produktu bat kontsumitzea posible da, maila soziala edozein dela ere.

4. ZEIN DIRA EKIMENAREN LAN GAKOAK PERTSONEN INKLUSORAKO?

Ekimenak elikadura katearen bi muturrak lotzen ditu (ekoizleak eta kontsumitzaileak) eta landa eremuan dauden pertsonen eta hirian bizi diren pertsonen posizioari modu positiboan laguntzen dio. Alde batetik, kontsumitzaileek elikagaietan gutxiago gastatzen dute eta kalitatezko elikagaiak eskuratzen dituzte; beste alde batetik, ekoizleentzat diru-sarrerak sortzea posible egiten da, ondorioz, landa eremuan jarrartzeko aukera dute. Merkaturatzeaz eta kontsumoaz gain, MICC elkartek

elikadura hezkuntza lantzen du kontsumitzaileekin. Alderdi hau ezinbestekoa da gaiaren inguruan kontzientzia handiagoa sortzeko, dieta osasungarri baten eta merkatu eta kontsumo justu eta solidarioaren baloreak hedatzeko.

Ekimenaren autonomia funtsezkoa da lanaren iraunkortasunerako. Beraz, nahiago da gobernuaren menpeko ez izan. Gobernuarekin lankidetzak mugatuak dira, kontziente direlako jasotzen den edozein laguntza amaitu daitekeelako gobernu edo gobernu osatzen duten kideen aldaketa bat ematen denean. MICC elkartearen autonomia eta auto-eraketak erresistentziako gaitasun handia ematen dio, bere 31 urtetan zehar izandako hainbat aldaketaren aurrean egokitzea lortu duelako. Gizartean etengabe berriz asmatzen eta berrantolatzen den ekimen bat da, politika egoeran eta tokiko erronketan ematen diren aldaketen aurrean egokitzeko. Ekimen honek ez du bere hazkuntza bilatzen nola hala, nagusiki askatasuna, gobernuari dagokionez, eta berezko izaera auto-jasangarria baloratzen dira.

5. EKIMENAK SARETAN LAN EGITEN AL DU? ZEIN SARETAN? NOLA?

Bai, bereziki Kontsumo Arduratsuko Taldeen Brasildar Sarearekin, inspirazio iturri delarik.

6. EKIMENAK GENERO DIMENTSIOA KONTUAN HARTZEN AL DU? ZEIN NEURRITAN?

Emakumeen partaidetza askoz zabalagoa da gizonen partaidetza baino, agian kultura mailan elikadura gai “femenino” bat izan delako. MICC elkartea kontziente da eremu honetan gizonen kontzientzia hartzearen beharraz, eta zentzu honetan, MICC elkartek lortutako esperientziak eta bere ekintzak garatzeko moduak, gizonak elikadura osasungarriaren gai honetara gerturatzea posible egin dezake, baita beren ikaskuntza erreala ere, gai honi dagokionez.

5. KONKLUSIOAK

Gure gertuko ingurunean, eta zehazki EAEn, tokiko mailan diagnostiko espezifiko eta zehatz bat eskatzen duen, pobrezia eta gizarte bazterketa arriskuko sektore berriak handitzen doaz. Jarduera ekonomikoa gauzatzeko modu ezberdinak, Ekonomia Sozial eta Solidarioa bezala, jarduera ekonomikoa berriz fokatzen eta pertsona eta bere ongizatea helburu bezala eta ez bitarteko bezala kokatzen duen modua. Hauek hego zein ipar globalean ematen diren pobrezia sorrera prozesuak gainditzeko beharrezkoak diren tresnen parte izan daitezke eta izan behar dute. Inklusio/bazterketa prozesuak lantzea, hauen diagnostikoa eta irteera posibleak ikuspegi integral, dinamiko, prozesuko, dimentsio anitzeko eta interseksional batetik kontuan hartu behar dela ikusi dugu.

2008ko Foessa txostenean izendatzen den bezala:

“Kaltetuen diren biztanleen sektoretako (ez bereziki diru-sarrera gabeziagatik) egoerek aurkezten dituzten konplexutasuna eta dimentsio aniztasunaren egiaztapenak, desberdinkerien eta diru-sarrera gabeziaren azterketa hori beste ikuspegi batekin osatzea beharrezkoa egiten du.” (53 or.)

Ikuspegi honek, diru-sarreraren gabezia (erlatiboa) eta bere zergatietan oinarritutako analisi ekonomizista garbira pasatzen diren dimentsioak kontuan hartzen ditu. Izan ere, funtsezkoa da onartzea alde batetik, inklusio/bazterketa prozesuek, pertsona eta kolektibo batean aldi berean interseksionatzen duten kanpo eta barne faktore anitzei erantzuten dutela; beste aldetik, bazterketa graduak ematen direla, eta egoera hauek dinamikoak direla, nahiz eta askotan egiturazko arrazoiak izan.

Horrez gain, aurretik behatutako inklusio/bazterketa modu ezberdinak kontuan izan behar ditugu: autoinklusio/auto-bazterketa, inklusio eta bazterketa arriskuagatik, konpentsazio inklusio/bazterketa barneratzailea, inklusio bazterketan eta azpi-inklusioa. Inklusio/ bazterketa modu hauek etengabeko elkarrizketan daude, eta erronka elkarrizketa hori propositiboa eta sormenezko tentsiokoa izatea lortzea da.

Egun, lantzeak duen konplexutasunaz gain, nolabaiteko onespren batez hitz egin daiteke, hiru eremu edo ardatzetan zailtasunak edo oztupoak existitu daitezkeen horretan arrazoitzean: ardatz ekonomikoa, hiritarren

ardatz politikoa eta ardatz sozial-erlaziokoa. Ardatz hauek elkar eragiten dute eta elkar gurutzatzen dira neurri handi batean, bere azterketa eta irtenbide bilaketa konplexuagoa bihurtuz. Ondorengo taulan, La exclusión social en España: un espacio diverso y disperso en intensa transformación (2008) ikerketan proposatutako dimentsioak ikus ditzakegu:

GIZARTE BAZTARKETAREN HIRU ARDATZAK

ARDATZAK	DIMENTSIOAK	ALDERDIAK
Ekonomikoa	Partaidetza ekoizpena	Normalizatutako soldata erlazioaren gabezia
	Partaidetza kontsumoan	Pobrezia ekonomikoa Gabezia
Politikoa	Hiritar politikoa	Eskubide politikoetara sarrera eraginkorra Abstentzionismoa eta pasibitatea politikoa
	Hiritar soziala	Babes sozialeko sistemetara sarrera mugatua: osasuna, etxebizitza eta hezkuntza
Soziala (erlaziokoa)	Gizarte loturen gabezia	Gizarte isolamendua, laguntza sozialen gabezia
	Gizarte erlazio “maltzurak”	Sare sozial “desbideratuetan” barneratzea Gizarte (portaera anomikoak eta familia (etxeko indarkeria) gatazka.

Pertsonen eta kolektiboen funtzionamendu mugek edo bazterketek, beraz, beren funtzionamendu gaitasunetan murrizketa bat suposatzen dute (Sen, 1995). Hortik abiatuz presazkoa eta beharrezkoa da, eskubideen ikuspegi batean eta Tokiko Giza eta Kolektibo-Komunitario Garapenaren bilaketan oinarritutako arazoaren aurrean erantzutea eta lan egitea.

Ekonomia Sozial eta Solidarioa itzuliz, Razeto-ren arrazoiketara jarraituz:

“Elkartasuneko ekonomia esperientziek, familia eta komunitate bizitza, hauek euskarritzen dituzten baliabide eta bitarteko ekonomikoak sortzera bideratuta dauden jardueretara barneratzea bilatzen dute. Horrela, ekimenak txertatzen diren tokiko inguruneari garrantzia berezi bat ematen diote, beti bere garapena eta hobekuntza erraztea bilatuz. Beste hitz batzuetan, elkartasuneko ekonomiak tokiko garapena bere helburu bezala onartzen du.” (Razeto, 1993)

Hain zuzen ere, Ekonomia Sozial eta Solidarioko erakundeek, partaidetza kolektibotik, erlazio estua duten komunitatea eta bere lurraldearekin, inklusiorako elementu interesgarri bat osatuz. REASen Eskutitz Solidarioan ezarritako helburu eta baloreak aztertzen eta mahai gainean jartzen baditugu, inklusio prozesuetan ezinbestekoak diren ekonomia sozial eta solidarioko parte diren elementuak daudela ikus dezakegu. Horrela, Ekonomia Sozial eta Solidarioa, maila (antolakuntza,


Konklusioen artean garrantzitsua da nabarmentzea, dimentsio kolektiboez duten garrantzia inklusio terminoetan, ondorioz, tresna, bide, gizarte inklusibo, ekitatibo eta ingurumenarekiko jasagarria den gizarte bat lortzeko modu berriak pentsatzera eramaten gaitu.

Ekonomia sozial eta solidarioa tokiko giza garapenaren dimentsio ekonomikoa bezala kontuan hartzen badugu (Guridi, L., Pérez de Mendiguren, J.C., 2014), maila kolektiboan zein indibidualean gaitasunak sortzeko duen potentziala, eta beraz, justizia soziala sortzeko inklusio potentziala, gizarte ongizatearen hobekuntza erreal bat lortzearen bidean bide luze, baina interesgarri bat irekitzen zaigula ikusiko dugu. Agian bilatzen ari garen tresna horietako bat da.

Ondorioz eta testu hau laburbilduz, ondorengo konklusioak nabarmendu ditzakegu:

1. Inklusio/bazterketa prozesuak, bere diagnostikoak eta arazo ezberdinen aurrean eman daitezkeen erantzun posibleak ikuspegi integral, dinamiko, prozesuko, dimentsio anitzeko eta interseksional ikuspegitik kontuan hartu behar dira. Era berean, kontuan hartu behar dira inklusio/bazterketa mota ezberdinak eta izaera mugikorra eta dinamikoa denboran eta testuinguru espezifikoan.
2. Prozesu hauek lantzeko garaian oso kontuan izan behar da lurralde dimentsioa, inklusio/bazterketa prozesuetan barneratuta dauden pertsonen eta kolektiboen inbrikatzeari lotuta. Ildo honetatik, eta honi lotuta, inklusioaren dimentsio komunitarioa kontuan hartu behar da ere.
3. Bazterketaren ardatzak modu ezberdinean kategorizatu daitezke. Hiru ardatzeko hirukote bat bezala ikusteak -ardatz ekonomikoa, hiritarren ardatz politikoa eta gizarte ardatza- hauek sinplifikatzen lagun gaitzake.
4. Beharrezkoa da inklusio/bazterketa prozesuak lantzeko tresna espezifikoak hartzea, egokitzea, asmatzea inplikaturik dauden eragileen aldetik (publikoak eta pribatuak). Ekonomia Sozial eta Solidarioa, Giza Garapenaren dimentsio ekonomikoa eta giza gaitasunen sortzailea bezala, horretarako oso baliagarria izan daiteke.

6. ERREFEREN- TZIA BIBLIO- GRAFIKOAK



Casanova, M,A, (2011). De la Educación Especial a la Educación Inclusiva. Participación Educativa. Revista cuatrimestral del Consejo Escolar del Estado, 18, 8-24

Soriano de Gracia, V. (2011). La educación inclusiva en Europa. Participación Educativa. Revista cuatrimestral del Consejo Escolar del Estado, 18, 35-45

Mancebo, E., Goyeneche, G. (2010). “Las políticas de inclusión educativa: entre la exclusión social y la innovación pedagógica” Mesa “Políticas de inclusión educativa” en las IX Jornadas de la Facultad de Ciencias Sociales de la Universidad de la República, Montevideo, setiembre de 2010

Escudero, J.M. y Martínez, B. (2011). Educación inclusiva y cambio escolar. Revista Iberoamericana de Educación, 55, 85-105

Castel, R. (1997). La metamorfosis de la cuestión social. Una crónica del salariado. Barcelona: Paidós

Morin, Edgar (2004). Introducción al pensamiento complejo, Barcelona: GEDISA.

Castells, M. (2000) La era de la información. Economía, sociedad y cultura. La sociedad red. Vol 1. México. Distrito Federal: Ediciones Siglo XXI.

Mascareño, A, y Carvajal. F. (2015) Los distintos rostros de la inclusión y la exclusión. Revista CEPAL, 116, 131-146

Pérez Orozko, A. (2012). Crisis multidimensional y sostenibilidad de la vida. Investigaciones feministas, 2, 29-53

Hill Collins, P, y Bilge, S. (2016). Intersectionality. John Wiley & Sons

Guridi.L y Pérez de Mendiguren JC. (2014) La dimensión económica del Desarrollo Humano Local: La economía social y solidaria. Hegoa (2014)

Jara, O. (2012). Sistematización de experiencia, investigación y evaluación: aproximación desde tres ángulos. F(x)= Educación Global Research, 1, 56-70

Pastor.E (2012) Sostenibilidad, impacto y eficacia de las Políticas Sociales municipales mediante la democratización e implicación social. Soc. estado. vol.27 no.3 Brasilia Sept./Dic. 2012

Dubois, A. (2010) “El Desarrollo Humano Local como marco de referencia para la economía social y solidaria” Presentación para el seminario del 02/12/2010 en Hegoa.

Dubois.A. (2013) El objetivo de una sociedad inclusiva: bases para una propuesta alternativa. Lan Harremanak/29 (2013-II) (43-69)



ESKU- ARGI

GARAPEN KOMUNITARIO
INKLUSIBORAKO TRESNA
BAT EKONOMIA SOZIAL
ETA SOLIDARIOTIK TOKIKO
ETA GLOBALEKO GIZA
GARAPENERAKO.